


hh  
hik hasi

Agustin Erkiziari elkarrizketa  
Eskola-jantokiak EAEn  
Kataluniako Hezkuntza Legea  
Zergatik da justuagoa 'zerrenda  
bakarra' Nafarroan?  
Memoria historikoaren zentroa  
Irantzu Pastor



ESKOLHERRIAN EUSKARAZ



Zergatik behar ditugu erleak?  
Non bizi dira?  
Nor da nor erlauntz batean?

**AURKITU ERANTZUNAK LEIHATILAZ ETA  
IRUDI POLITEZ BETETAKO LIBURU HONETAN**

# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## ESKOLHERRIAN EUSKARAZ

Sortzen Elkarateak *EskolHerrian Euskaraz* gida praktikoa aurkeztu du, ikasle euskaldun eleaniztunak hezteko hizkuntza proiektuaren gida. Liburuxka batean bildu ditu bi ikastetxeren esperientzia, hizkuntza proiektuaren marko teorikoa eta gainerako ikastetxeentzat gida praktikoa. Belaunaldi berrien euskalduntzean eskolak zeregin handia badauka ere, auzoan, herrian, komunitatean jartzen du azpimarra.

## ELKARRIZKETA / 20

### AGUSTIN ERKIZIA

15-29 urte bitarteko gazteen artean suizidioa da heriotza kausa nagusia. Sufrimendu handia bizi ohi dute suizidatutako pertsonak. Eta baita haien heriotzak minduta gelditzen direnek ere. Hori ondo daki Erkiziak, Biziraun Elkarteko kideak. 17 urteko Joseba semea suizidatu zitzaion duela ia 5 urte. Eta orain dela urtebete Biziraun Elkaratea sortu zuten, maite dugun norbaiten suizidioak mindutako pertsonen elkartea.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus); Posta Elektronikoa: [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus); Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Diarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.

**Diseinua:** Grafik.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANtZA S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2018-01-15).

Kopurua: 3.200 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

## 5 EDITORIALA

Hizkuntza kontuetan ere helduok erreferente

## 6 ALBISTEAK

## 10 GAI NAGUSIA

Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko hizkuntza proiektua

## 20 ELKARRIZKETA

### AGUSTIN ERKIZIA

“Normaltasunez hitz egin behar dugu suizidioari buruz. Besterik gabe, gerta litekeelako”

## 28 EKARPENAK 1

Nolakoak dira eskola-jantokiak EAEn? Eta nolakoak izan litezke?

## 32 EKARPENAK 2

Kataluniako Hezkuntza Legea. Autonomia eta lankidetzaren eraldaketaren giltza

## 36 GALDEIDAZU

### MIKEL LIZASO

Zergatik da justuagoa zerrenda bakarra Nafarroan?

## 39 ARGITALPENAK

## 40 PROPOSAMENA

Elgetako memoria historikoaren interpretazio zentroa

## 42 ATZEKO ATETIK

Irantzu Pastor

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia



# Hizkuntza kontuetan ere helduok erreferente

## editoriala

BELAUNALDI BERRIEN EUSKALDUNTZEAN ESKOLAK ZEREGIN HANDIA DAUKAN ARREN, FAMILIA, AUZOA ETA HERRIA ERE FUNTSEZKOAK DIRA. ESKOLAK EZAGUTZA BERMATU BEHAR DU, BAINA EZIN DU EUSKARAREN IRLA IZAN.

**A** tetik sartu zarenean, isildu egin dira denak” gaia emanda, irakasle gelan sarrean mundua isilik geratu zaion irakaslearen paperean jarrita Aitor Sarriegi bertsolari eta irakasleak 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko kartzelakoan hauxe kantatu zuen: “(...) askotan gela honetan erdaraz egiten da hitz; eta hala esan nien irrifar aurpegia jarriz; elitzake hain grabea ikastola bat ez balitz” / “Ardura handiko lana da nire ustez daukaguna; irakaslea ez baita ikaslearen laguna; honetara iristeko nor izan da erruduna; ikastolan falta bada kontzientzi euskalduna; hemen egin behar dugu geuk egin dezakeguna; ‘Buenos dias’-ka ezin da hasi guretzat eguna; eta nolakoa izango da gure etorkizuna, haurrei eskatu ezkeru geuk egiten ez duguna”.

Kezka eragiten duen gaia da euskararena. Bada eztabaida eskolak jokatzen duen paperaren gainean ere: zenbateraino euskalduntzen ditu ikasleak? Zer-nolako ezagutza lortzen dute? Dakitenek ere gero erabiltzen al dute? Zein gutxieneko profil linguistiko izan behar dute ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitzean? Eskolatik ateratzen direnean ikasleek ba ote dute euskara erabiltzeko aukerarik?

2008an Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak *Ikasle euskaldun eleanitzak* izeneko proposamena argitaratu zuen, hezkuntzan urteetako eskarmentua duten eragileekin zein adituekin elkarlanean, tartean Hik Hasi. 2017ko abenduan, berriz, hezkuntzako ituna lortzeko Eusko Jaurlaritza egiten ari den prozesuaren bueltan, ikasle guztiek euskaraz B2 maila lortzeko neurriak eskatu dituzte eragile berberak, euskara ardatz duen eredu orokortua aldarrika-



tzearekin batera.

Eta, bai, hezkuntzan badago zer egina. Hala eta guztiz ere, euskararen esparru indartsuenak eskolak dira, Eusko Jaurlaritzak Soziolinguistika Klusterrarekin batera egindako Arrue ikerketak erakusten duenez. Eskolako erabilek alderatzen badira ikasleek eskolatik kanpo egunerokoan dituztenekin, ikusten da eskola dela EAEko ikasle gehienentzat eremurik euskaldunena, eta haietako hainbatentzat euskaraz aritzeko aukera eskaintzen dien bakarra.

Beraz, eskolak asko egin dezake, egiten du —eta egin behar du bere esku dagoen guztia—, baina horrekin ez da nahikoa. Sortzenek abian jarri duen *EskolHerrian euskaraz* proiektuaren gainean jorratu dugun aldizkari honetako gai nagusian jasotzen den eran, belaunaldi berrien euskalduntzean eskolak, zeregin handia badauka ere, familia, komunitatea, auzoa eta herria ere funtsezkoak dira. Eskolak ezagutza bermatu behar du, baina ezin du euskararen irla izan.

Erreportajearen irakur daitekeen moduan, zenbait herritan arduratuta daude ikasleen artean euskara gero eta gutxiago erabiltzen delako. Dima izan daiteke horren erakusle. Euskararen arnasgune izatetik hizkuntzaren erabileran atzeraka doan udalerriz izatera igaro da. Eta, zoritxarrez, ez da kasu bakarra. Horrelako gertakarien erantzule, ordea, guztiok gara; erakundeak bai, baina baita herri eragileak ere; irakasleak bai, baina baita etxeok, lagunak, auzokideak eta gainontzeko herritarrak ere. Argi baitago helduok garela eremu guztietan erreferente nagusi haur eta nerabeentzat. Arratiako esapidea geure ginez, “umetan entzune, umean zentzune”.

**“Hezkuntzaren bidez belaunaldi berriak euskalduntzean lehentasuna jarri duen hizkuntza politikaren mugak agerian geratu dira”**

Euskararen Kontseilua



# Hezkuntza hobetzeko 10 GAKO

jardunaldiak



Hik Hasik **HEZKUNTZA-PROPOSAMENA** aurkeztu zuen ikasturtearen hasieran: *Kalitatezko hezkuntza bermatzeko zoru pedagogikoa eta etikoa: hezkuntza hobetzeko gakoak*.

10 gakoen gainean gogoeta egiteko eta eztabaidatzeko jardunaldiak antolatzen ari da Hik Hasi **apirilaren 20an eta 21ean Donostian**.

\* Hizlarien artean izango dira, besteak beste, *Ane Ablanedo, Kontxi Alzarna, Lore Erriondo, Amaia Etxabe, Eneko Itziar, Nora Salbotx, Xabier Sarasua, Xabier Tapia...*

\*OHARRA: 10 gakoen gainean ekarpenen bat idatzi nahi duenak, **OTSAILEAN** idatz dezala helbide honetan: <https://goo.gl/forms/V9MUBlQwmKnxlqcv1>

Informazio osoa eta izena ematea, martxoaren 1etik aurrera

**www.hikhasi.eus** helbidean

# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## HEZKUNTZAKO SINDIKATUEK GREBAK IRAGARRI DITUZTE MARTXOTIK AURRERA



Eusko Jaurlaritzak euren eskaerak onartu ezean, ELAk, LABek eta Steilasek mobilizazioak indartuko dituzte Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hezkuntza publikoan. Negoziazio mahaietan euren eskaerei erantzun zehatzak emateko eskatu diote sindikatuek Hezkuntza Sailari. Gainontzean, protesta gehiago egingo dituzte datorren udaberrian. Greba egingo dute martxoaren 14an eta 15ean eta ekainaren 12an Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoko beharginek. Apiriletik aurrera sektoreka joko lukete grebara: irakasleek, apirilaren 23ko astean; heziketa bereziko beharginek, maiatzaren 7koan; sukaldariek eta garbitzaileek, 21ekoan; eta Haurreskolak partzuergoan, ekaineko lehen astean. Horrez gainera, martxoaren 2an hasita, ostiralero, elkarretaritzeak egingo dituzte ikastetxeetan, eta hezkuntza komunitateari egingo diote parte hartzeko deia.

Sindikatuek aitortu dute joan den abenduko sektorekako bileretan gobernuak euren eskaera batzuei erantzun zuela, baina modu oso partzialean. Mobilizazioekin hasi zirenetik egin dituzten aldarrikapenen zerrenda gogoratu dute: besteak beste, lantaldeak handitu, behin behinekotasuna % 6ra jaitsi, ikasle ratioak apaldu, ordezkapenak lehen egunetik egin eta gaixoaldiak osorik ordaindu.

Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak gogor erantzun dio mobilizazio deialdiari: “Onartezina da hezkuntza publikoaren aldeko apustua egin duten familiak bahitzea, lan arloko aldarrikapenetarako”. Esan du ez zuela horrelakorik espero: “Azken bileren ostean ikusi genuen harrera ona egin zietela gure proposamenei. Haien ustez, negoziatzeko oinarriak zeuden”.

## D EREDUKO IKASTETXEEN ZERRENDA HANDITU DUTE NAFARROAKO EREMU EZ-EUSKALDUNEAN

Nafarroako Gobernuak duela bi ikasturte hasi zen D eredia eremu ez-euskaldunean ere eskaintzen, eta, orduetik bilakaera irregularra izan duen arren, euskarazko hezkuntza errotzen hasia da. Horren erakusle dira Hezkuntza Departamentuak 2018-2019ko ikasturteko aurrematrerialazioari begira ezarritako aldaketak; besteak beste, D ereduko ikastetxeen zerrenda zabaldu du, eta Nafarroako hegoaldeko hamasei ikastetxe publikotan eskainiko da euskarazko lerroa, iaz baino bi gehiagotan. 14 ikastetxetan trinkotu egin da eskaintza, eta baita bi berritan ere, D ereduko eskaera ugari jaso dituztelako.

### D ereduan izena emateko deia

Nafarroako Gobernuak —Euskarabide institutuaren bitartez— eta 24 tokiko entitatek D ereduan izena ematera dei egin dute. *Hautatu hezkuntza euskaraz, hautatu D eredia* izeneko kanpaina herrialde osora zabaldu du administrazioak. Egitasmoarekin bat egin duten tokiko entitateek Nafarroako biztanleria gehiena hartzen dute, Euskarabideak nabarmentzen duenez. Izan ere, kanpainara batu dira Nafarroako udalerrri eta mankomunitate handienetako batzuk: Iruñea, Barañain, Eguesibar, Sakana, Zizur Nagusia, Berriozar, Uharte, Burlata, Orkoien eta Agoitz, besteak beste.



## IKASLEEN ARTEAN IRAKURTZEKO ZALETASUNA ZABALDU DEZATEN, IRAKASLEAK TREBATUKO DITUZTE

Galtzagorri elkarteak eta Eusko Jaurlaritzak ituna egin dute 70 eskolatan irakasleekin "lantegiak" egiteko eta maisu-maistrak trebatzeko ikasleen artean irakurtzeko zaletasuna zabal dezaten. Galtzagorri elkarteak urteak daramatza helburu horrekin lanean, eta, oraingoan, irakasleen bidez egin nahi dute indar. Hala, ikastetxeetan saioak egingo dituzte Galtzagorriko kideek: 70 eskola sartu ahalko dira aurtengo proiektuan, eta irakasleei baliabideak eskainiko dizkiete ikasleak euskarazko liburuak irakurtzera bultza ditzaten. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak finantzatuko du egitasmoa, 30.000 euroekin.



## HERRI CURRICULUMA AURKEZTU DUTE ARAMAION, HERRITARREN BABESAREKIN

Hirugarren ikasturtea da Aramaioko Herri Curriculumuma (AHC) lantzen hasi zirenetik. Udalak, San Martin Eskola eta Guraso Elkarteak dira ekimen horretan parte hartzen ari diren eragileak, interesa erakutsi duten beste hainbat herritarrekin batera. Ondorengo galderari erantzutea da AHCren helburua: *Zer jakin beharko luke 12 urteko aramaiotar batek Aramaiori buruz?* Galdera hori oinarritzat hartuta, arlo desberdinak izango dituen dokumentua garatzen ari dira —Aramaioren historia, kultura, tradizioak, balioak, jarrerak, nekazaritza eta abeltzaintza moduak, eta abar—. Orioko Herri Curriculumuma dute erreferentzia moduan, baina alderantzizko bidea ari dira egiten. Orion alde tekniko guztia aztertu ondoren garatu zuten sekuentzia didaktikoa. Aramaion, berriz, lehenik sekuentzia didaktiko bat egin dute —elikadura iraunkorraren gainera, hain zuzen—, eta, orain, apurka-apurka gaineko aterki guztia joango dira diseinatzen.

## ESPAZIOAK HEZIKETAN DUEN ERAGINA AZTERTZEKO JARDUNALDIAK EGINGO DITUZTE IRUNEAN

"Hezkuntza eta espazioa" izenburupean jardunaldiak antolatu ditu Nafarroako Eskola Kontseiluak udaberrirako. Martxoaren 5etik 8ra, besteak beste, "hezkuntza eta natura", "hezkuntza eta arkitektura", eta "hezkuntza eta hiria" gaiak jorratuko dira. Hizlarien artean izango dira Heike Freire *Cuadernos de Pedagogiako* zuzendaria eta heziketa berdean aditua; Clara Slava arkitektoa eta pedagogoa; edota hainbat eskolatako irakasle eta arduradunak. Jardunaldiok arratsaldetik 17:30etik 20:00era egingo dira Iruñeko Nafarroako Museoren areto nagusian. Horrez gain, apirilaren 11n, 18an eta 25ean hainbat eskola bisitatzeko aukera izango da.

## NAFARROA BEHEREKO LEHEN HAURTZAINDEGI EUSKALDUNA IREKIKO DUTE

Nafarroa Behereko lehen haurtzaindegi euskaldunak 2019ko urte hasieran irekiko ditu atea Lakarran: Tinka haurtzaindegiak. Irekia izango da euskarazko harrera bat nahi duten familia guztientzat.



# HIZPIDE IZANGO DA

## 'HEZKUNTZA HOBETZEKO HAMAR GAKO' IZENeko JARDUNALDIak EGINGO DIRA APIRILAREN 20AN ETA 21EAN



Hik Hasik Hezkuntza Proposamena aurkeztu zuen ikasturte hasieran, *Kalitatezko hezkuntza bermatzeko zoru pedagogikoa eta etikoa: hezkuntza hobetzeko gakoak* izenburupean. Hezkuntza hobetzeko xedez, proposamen horretan jasotzen diren hamar gakoek gainean gogoeta egin eta eztabaidatzeko jardunaldiak antolatu ditu Hik Hasik udaberriaren Donostiako EHU. Apirilaren 20an, 17:00etatik 21:00etara, eta apirilaren 21ean 9:00etatik 14:00etara egingo dira jardunaldiok. Hizlarien artean izango dira, besteak beste, Ane Ablanado, Kontxi Aizarna, Lore Erriondo, Amaia Etxabe, Eneko Itziar, Gonzalo Larruzeta, Nora Salbotx, Xabier Sarasua edota Xabier Tapia.

## TALDEA OSATU DA KUBARA EGINGO DEN BIDAIA PEDAGOGIKORAKO, BAINA ORAINDIK BADA LEKUREN BAT

Kubako hezkuntza-sistema ezagutzeko bidaia pedagogikoa antolatu du Hik Hasik martxoaren 30etik apirilaren 7ra, iaz Finlandiara eta Reggio Emiliara antolatutako bidaien ildotik. Izena emateko epea itxi da eta jada taldea osatuta dago, baina, oraindik lekuren bat edo beste geratzen denez, norbaitek bidaiaren parte hartu nahiko balu, [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus) helbidera idatzi besterik ez du edota 943 371 408 telefono zenbakira deitu.

Apirilaren 2an, astelehenean, Kubako hezkuntzaren antolaketaren inguruko hitzaldia izango da, oinarri gisa. Hortik aurrera, apirilaren 3an, 4an eta 5ean, ikastetxeetara bisitak egingo dira: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza, Unibertsitate Aurrekoa eta Unibertsitateko Irakasleen Eskola bisitatuko dira. Horren bidez, *Haurra hezten* programa ezagutzeko aukera izango da.

## HAUR 'NAHASTUEN' INGURUKO SAIOA EMANGO DU ALVARO BENARANERAK MARTXOAREN 13AN

"Nahastutako haurrak... helduen nahasmena" izeneko formazio saioa egingo da martxoaren 13an Bilbon Alvaro Beñaran psikomotrizista eta terapeutak gidatuta. Besteak beste, "nahasmena" erakutsi ohi duten haurren aurrean helduek zer-nolako jokabideak hartzen dituzten eta horretan guztian jokoan zer sartzen den azalduko du formatzaileak.

Saioa Bilboko Azkue Fundazioan izango da, arratsaldeko 18:00etan. Formazioa doakoa bada ere, parte hartu nahi duenak izena eman behar du plazak mugatuak direlako. [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunearen bidez egin daiteke izen-ematea. Matrikula egiten duenari saiora joateko konpromisoa eskatu nahi dio Hik Hasik, gainontzean beste bati tokia kentzen zaiolako.

## UROLA KOSTAKO ESKOLA AKTIBO BATEAN JARDUTEKO LAN POLTSA IREKI DA

Urola Kostako eskola aktibo batek hezitzaileen lan poltza zabaldu du ikasturte honetan zehar sor litezkeen beharrei erantzuna emateko asmoz. Interesa duenak [zingiranhazi@gmail.com](mailto:zingiranhazi@gmail.com) helbidera bidali behar du curriculum.



Sortzen Elkarteak 'EskolHerrian Euskaraz' gida praktikoa aurkeztu du, ikasle euskaldun eleaniztunak hezteko hizkuntza proiektuaren gida praktikoa. Liburuxka batean bildu ditu bi ikastetxeren esperientziak, hizkuntza proiektuaren marko teorikoa eta gainerako ikastetxeentzako gida praktikoa, urratsez urrats xehetua.

Sortzenek argi dauka belaunaldi berrien euskalduntzean eskolak, orain arte bezala, zeregin handia badauka ere, komunitateari, gizarteari dagokiola haur eta gazteen eskubideak bermatzetik gure hizkuntzaren eta gure kulturaren etorkizuna bermatzea. Horrexegatik, proposamen berri honek eskola, hezkuntza komunitatea eta herri osoa biltzen ditu bere baitan. Eta guztiak jartzen ditu ikasle euskaldun eleaniztunak hezteko zereginetan.

# GAIA: ESKOLHERRIAN EUSKARAZ

## Ikasle euskaldun eleaniztunak hezteko proiektua

**E**uskal Herrian Euskaraz aspaldiko aldarrikapena da Euskal Herrian, eta Sortzen Elkarteak, lizentzia txiki bat hartuz, *EskolHerrian Euskaraz* esakerara moldatu du. Aldarrikapen hori hezkuntza eremura ekarri eta helburu dutena bertan islatu nahi izan dute. Hala diote: “*EskolHerrian Euskaraz*-ek esan nahi du eskolan euskara ikastetik eta euskaraz ikastetik, eskola, bere osotasunean, euskaraz bizitzera pasa behar dugula, eta eskolak ikasle euskaldunak hezteaz gainera, egungo munduan eragiteko gai izango diren euskaldun eleaniztunak hezi behar dituela. Eta horrek ezinbestean hizkuntza-eredu bakarraren aldeko apustua egitea eskatzen du, murgiltze-mantentze ereduaren aldekoa.

Baina hori baino gehiago esan nahi du *EskolHerrian Euskaraz*-ek. Izan ere, eskolatik at, haur eta gazteentzat euskaraz bizi ahal izateko eremu errealak irabazi beharrean gaude, eskolak egingo duen lana osatu, eta hori herritar eta herri eragile askotarikoen partaidetza zabalaren bidez egin beharreko bidea da, non hezkuntza-komunitatea bera inplikaturik egongo den”.

Gida hau da, Sortzenek, Euskal Herriko edozein herri-auzo eta ikastetxeri, edozein testuinguru soziolinguistikotan kokatuta dagoela ere, edota edozein hezkuntza saretakoa izanik ere, eskaintzen dion tresna. Esandako ibilbide hori egiteko bitartekoa. Ikasle euskaldun eleaniztunak hezte ahalbidetzeko gida.

### Aurrekariak

Proposamena ez da ezerezetik sortu, badu aurrekaririk. 2008an Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak “Ikasle euskaldun eleaniztunak” proposamena argitaratu zuen, hezkuntzan urteetako eskarmentua duten eragileekin zein adituekin elkarlanean egindako dokumentua. Euskal Herriko edozein ikastetxetan aplikagarri litzatekeen hizkuntza proiektu eredu bat aurkeztu zuen. Aipatutako proposamenak, hizkuntza proiektuen beharra azpimarratzeaz gain eta horiek egiteko irizpideak emateaz gain, hezkuntzan euskararen normalizazioak beharrezko lukeen marko legalaren erreforma eta hori egiteko gako nagusiak ere plazaratu zituen.

Orain, Sortzenek proposamen teoriko hura praktikara eramateko ekarpen zehatza egin du. Eta baita salto kualitatibo bat ere: ikasgelatik haratago, herrira egin du jauzi. Eta hori da gida praktikoa honen ekarpen handienetakoa: eskolako hizkuntza proiektua auzo eta herriko euskalduntze proiektuarekin lotu du.

Hala, 2013 eta 2017 urteen artean, *EskolHerrian Euskaraz* proposamena bi ikastetxetan eraman dute aurrera: Donostiako Egia auzoko Aitor ikastolan eta Dimako Ugara herri eskolan. Berauen esperientziaren berri ematera goaz hurrengo orrialdeetan, zer eta nola egin duten jakite aldera.

# Proposamenaren bi adibide praktiko

## Aitor ikastola, elkarlan instituzionalizatuaren ispilu

Aitor ikastolako komunitatea 257 familiak osatzen dute. Horietatik 110 familiatan guraso biak dira euskaldunak, 60 familiatan gurasoetako bakar batek baino ez daki euskaraz, eta gainerakoetan ez dago guraso euskaldunik. Beste lurraldeetatik etorritako familiak ere ugaritzen ari dira azken urteotan. Gaur egun, adibidez, 28 herrialde desberdinetatik etorritako familiak daude.

Aitor ikastolak lotura estua izan du sorreratik bertatik Donostiako Egia auzoarekin. Ikastetxeko hezkuntza komunitatea osatzen duten ikasle eta guraso gehienak auzotarrak dira. Klaustroa osatzen duten irakasle kopuru esanguratsu bat ere auzokoa da. Ondorioz, ongi ezagutzen dute auzoko errealitatea eta baita auzoko eragileak eta elkarteak ere. Elkarlanean aritu izan dira.

Edonola ere, ikastetxearen eta auzoko eragileen artean aurrera eramandako ekintza horiek nagusiki puntualak eta aldi baterakoak izan dira gehienbat. Orain, ordea, *Eskol-Herrian Euskaraz*-en planteamenduak ekintza puntuale-tatik elkarlan instituzionalizatu batera pasatzea ekarri du; auzoko eragile guztiak adostutako plangintza integral bat osatu dute.



Proiektuan murgildu zirenean, euskararen erabilerari dagokionez, kezka handia zuten. Euskararen erabilerak ikasleengan beheranzko joera hartua zuela sumatzen zuten, nahiz eta gurasoen euskara maila nabarmen igo eta euskararen ezagutza maila ikasleengan bermatua egon.

### Euskaldun eleaniztunak sortzen

2012-2013 ikasturtean, jarraipen bilera gunea sortu zuten ikastetxeak berak eta beste zenbait bidelagunek: Sortzen elkarteak, Euskararen Kontseiluak, Elhuyar Fundazioak eta auzoko zenbait eragileak. Bertan, elkarrekin egin beharreko lana zehaztu zuten.

2013-2014 ikasturtean, hizkuntza proiektuaren abiapuntua argitzeko asmoarekin, diagnostia egin zuten irakasleekin, ikasleekin, gurasoekin eta auzoko eragileekin. Horietako bakoitzak hizkuntzekiko, ikastolan zein ikastolaz kanpo, zuen ibilbidea azaldu zuten eta horren gainean hausnartu zuten. Diagnosti hartatik, hainbat ondorio atera zituzten:

- Irakasleek egindako diagnosiaren ondorio nagusien eskola orduetan ahozotasuna era sistematikoan lantzeko beharra izan zen. Horretarako, HUHEZIKo kideekin harremanetan jarri ziren eta bertatik aholkularitza jaso zuten.
- Gurasoek egindako saioen emaitzen arabera, hizkuntza, eta batez ere, euskararen erabileraren inguruko jarrerak definitu, konpromisoak zehaztu eta horiek gauzatzeko beharra sumatu zuten eta zenbait sentsibilizazio saio jarri zituzten abian.
- Ikasleek euskararekiko atxikimendua eta maitasuna adierazi zuten eta behintzat hizkuntzaren kontrako jarrerarik ez zutela frogatu zuten, eta horrek, etorkizunera begira, esperimintatzen jarraitzeko beta eman zien.
- Auzoan Foru Aldundiak bultzaturiko Oinherri Herri Hezitzailearen taldearen egitasmoaren barnean, Egia Hezitzailea proiektuaren ideiarekin hasi ziren.

## GAIA: ESKOLHERRIAN EUSKARAZ



Proiektu hori aukera paregabea zen euskara auzora zabaltzeko, eta bertan murgildu ziren bete-betean Antxeta aisialdi taldea, Maria Reina eskola, Aitor ikastola, Haur gunea eta Tabakalerako hezkuntza atala.

2014-15 ikasturtean, aurreko ikasturtean erabakitako bideari ekin zioten. Nagusiki, irakasleen prestakuntzan sakondu zuten eta HUHEZIren gidaritzapean aritu ziren hizkuntzaren inguruko metodologia aztertzen. Euskararen jardunaren inguruko gogoeta egin eta irakasleen lanaren auto-behaketa eta analisisia egin zituzten. Bertatik hausnartutakoak ikastetxeko hizkuntza proiektua elikatzen hasteko balio izan zuen.

2015-2016 ikasturtea ekimen berriekin hasi zuten, guraso eta ikasleak euskarara gerturatu eta haien hizkuntza jardunean eragin nahian. Horrela, guraso eta ikasleak bildu eta kirolaren eta sukaldaritzaren inguruko ekintzak gauzatu zituzten elkarrekin; horien arteko zubia, euskara izan zen, noski. Gurasoak bilerara deitzea baino nahiago izan zuten zuzenean beraiekin ekintzak egitea.

Eskolako gurasoak euskalduntzeko helburuarekin, euskara ikasteko taldea ere sortu zuten 10-12 gurasoz osatuta. Euskararen beharra sentitzearekin batera, elkarlana eta afektibitatea izan dira euskarara hurbiltzeko bitartekoak.

Halaber, gurasoekin “Ongi etorri ikastolara” proiektua jarri zuten abian, jatorri ezberdinetako gurasoen arteko zubiak eraikitzeko helburuarekin. Proiektuak kanpoko familia bat eskolako familia batekin lotzen du. Eta hezkuntza sistemak duen aniztasunari erantzun nahian, harrera protokolo bat ere jarri zuten martxan. Horrek guztiak euskara taldean eta auzoko programan gurasoen parte-hartzea handitzea lortu zuen.

Auzoan ere bereziki oparoa izan zen ikasturtea. Ikastolako hizkuntza proiektuaren txapelpean eragile asko elkartu baitziren “Egian euskaraz bizi nahi dugu” ekimenean: guztira 23 eragile eta 400 norbanako baino gehiagok hartu zuten parte. Lutxo Egia idazle bilbotarrak egindako esperientziatik hartu zuten ideia egitarrek. Hilabetez hartu zuen konpromisoa idazleak euskaraz bakarrik hitz egiteko. Egitarrek 8 astetara luzatu zuten ekimena. Astero, euskaraz mintzatzeko konpromisoa hartzen zuen auzoko eragile batek eta horren lekukoa ostiralero pasatzen zion beste bati.

“Ni naiz euskararen giltza” izan zen beste ekimen bat, gurasoei bideratutakoa. Aitor ikastolan argi baitute seme edo alaba ekartzen duen orok jakin behar duela ikastolak bakarrik ez duela euskalduntzen, eta gizartea, gurasoak batez ere, direla euskararen giltza. Horrela, guraso erdal-dunei euskarara hurbiltzeko tresnak eskaini dizkiete eta

GAIA:

## ESKOLHERRIAN EUSKARAZ

Ikasle euskaldun eleaniztunak hezteko proiektua

herriko eragile askok lagundu dute horretan: Donostiako Udalak ikastolan bertan euskaraz aritzeko diru-laguntzak eskaintzen ditu, euskaltegiek ere langabetuei diru-laguntzak eta jatorri etorkineko pertsoneri euskara irakasteko AISA ikastaroak, Udaleko auzoko programak daude (euskarekin lehen harremana duten jatorri ezberdinetako bizilagunentzat) eta auzoan ere beste makina bat aukera daude euskara ikasteko eta hobetzeko.

2017-2018 ikasturtearekin batera sei urte bete direnez proiektua martxan jarri zutela, bi gune dituzte lanean buru-belarri auzoan. Batetik, Euskara Batzordea lanean dabil anbulatorioan ere euskaraz mintzatzeko eta 2.000 egitarrek eman diote baietza “Niri euskaraz zuzendu” erronkari. Bestalde, auzoan merkataritza euskalduna bultzatzeko, irekiko dituzten denden jabeekin ere hitz egin behar dute errotulazioa euskaraz jar dezaten.

Horrez gain, Egia Hezitzailearen baitan, Aitor ikastola eta Maria Reina eskolako ikasleak auzoko proiektuan sarturik daude eta auzoko hainbat toki aztertzen ari dira gerora proposamenak egiteko eta eraldaketak gauzatzeko.

Eskola barruan, irakasleak eta langileak HUHEZIREn gidaritzapean aritu dira lanean eta benetan interesgarria dela esan dute. Ikasleak, berriz, kontziente dira euskarren erabilera ez dela behar den bezain zabala eta erabilerera handitzeko ideien eta proposamenen bila ibili dira. Gurasoen aldetik, berriz, proiektuan murgildurik ibili dira eta aurrera begirako ildoak finkatu dituzte.

### Emaitzak eta ondorioak

Sei urte pasa dira proiektuarekin hasi zirenetik, eta hainbat eremutan ikusten dituzte aldaketak. Aipagarriena auzoan gertatu dena izan dela azpimarratzen dute. Auzo osoa helburu bakar baten pean jarri da lanean: euskara.

Aspalditik zegoen euskararen aldeko taldea auzoan, baina haren funtzioa egun edo ekintza konkretuetara mugatu izan da, euskararen egunera edo korrikara, hain zuzen. Orain, berriz, modu jarraian eta aktiboan dabilta lanean hainbat eragile elkarrekin. Eta elkarlan horren emaitza izan dira lehen aipatutako ekimenak: “Egian euskaraz bizi nahi dugu”, “Niri euskaraz zuzendu”, “Zu zara euskararen giltza”...

Eskolak hasieran bere barnean hasitako proiektu batekin ingurunea aktibatu du eta lau hormetatik haratago joan

da. Horrez gain, dinamika horrek guztiak batasuna ekarri dio Egia Hezitzailea taldeari. Auzoko eskolak batzen dituen taldea da, eta orain, ume eta gaztetxoaren eremuaz gehiago arduratzen hasi da.

Eskola barruan ere ondorioak izan ditu proiektuak. Aipatzekoa dela diote ikasleen kontzientziazioa eta euskararen agertu duten konpromisoa. Ikasleak beraiek konturatu dira horren balioaz eta prest daude eta nahi dute euskararen alde lan egin.

Gurasoen inplikazioa ere nabarmen handitu dela diote. Seme-alabekin batera jarri dituzte lanean edo ekintzetan parte hartzen. Horrela, seme-alabengandik heldu zaie mezuak. Irakasleei dagokienez, hasieran bazuten proiektuarekiko nolabaiteko ezjakintasuna eta kezka. Baina, orain, bideak erakutsi die proiektuaren balioa eta pozik daude irteten doazen emaitzekin.

### Erronkak

Egindako lanaren fruituak ikusita, gogotsu daude erronka berriei heltzeko. Aitor ikastolak, barruko lanari begira, hurrengo ikasturtean hizkuntza proiektua definitu eta idatzi nahi du.

Familiekin eta ikasleekin ere gehiago jarduteko premia ikusten dute. Gurasoen inplikazioa benetakoa izateko, seme-alabak euskalduntzeko ardura beren gain hartzea garrantzitsua dela deritzote.

Auzoari dagokionez, eragile batzuek beste batzuek baino gehiago heldu direla ohartzen dira, lehentasunak jarri behar izan dituztelako. Hori dela-eta, aurrera begira eremu hori fintzen jarraitzeko asmoa dute, eragile gehiagorengana iristeko.

Asmo horiek guztiak aurrera eramateko baliabide falta dutela nabarmendu dute egitarrek. Hezkuntza Sailaren aldetik ez dute erantzunik jaso. Donostiako Udalaren lana eta handik jarritako bitartekariak, aldiz, lagungarri izan direla aipatu dute eta eskertu egin dituzte. Baina etorkizunera begira, gehiagoren premia izango dutela aurreikusiten dute.

Edonola ere, baliabide falta izanagatik ere, gogoarekin gauzak egin daitezkeela erakutsi dute eta hori bai dela proiektuarentzako ezinbesteko bermea.

## Diman, eragile guztiak bat euskararen alde lanean

Dima Arratiako eskualdean dagoen bizkaitar herria da eta 1.310 biztanle inguru ditu. Euskararen arnasmune izatetik hizkuntzaren erabileran atzeraka doan udalerrri bihurtu da Dima. Soziolinguistika Klusterrak egindako azken azterketen arabera, 1981etik 2011ra erabilerara sano jaitsi da. Euskararen ezagutza-indizea nahiko altua bada ere (% 87,4), lehen hizkuntza gisa euskara erabiltzen dutenak nabarmen jaitsi dira (% 23,7), baita etxean euskara darabiltenak ere (% 22,5).

Egungo eskola 1991n zabaldu zen. Garai hartan kontzentrazioak zeuden modan eta herria eskola gabe gelditzeko arriskuan egon zen. Gurasoen inplikazioari esker lortu zen egungo eskola sortzea. Beraz, herritik eta herriarentzat sorturiko eskola dela esan daiteke, eta ondorengo lerroetan ikusiko den gisan, herriarekiko lotura hori ez du galdu. 44 ikaslerekin hasi ziren 1991n, eta gaur egun 148 izatera iritsi dira. 114 familiak osatzen dute eskolako komunitatea. Une honetan Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapak eskaintzen ditu.

### Hizkuntza proiektuaren aurrekariak

Datu soziolinguistikoei erreparatzen badiegu, guraso biak euskaldunak diren familiak 85 dira; guraso bakarra euskalduna dutenak 10, eta biak erdaldunak direnak 9. Diman euskararen erabilerarekin nahiko kezkatuta dabil-tza. Kalean gero eta erdara gehiago entzuten da, batez ere gurasoen artean, eta horrek eragin negatiboa du bertako umeen euskararen erabileran. Badago esaera zahar bat hala dioena: “Umetan entzune, umean zentzune”. Ildo horretatik, garbi ikusten dute euskaraz bizitzearen ardura eta erantzukizuna ez dagokiola eskolari bakarrik.

Dimako eskola oso arduratuta egon izan da hizkuntza eta kulturaren esparruarekin. 2012. urtean inflexio puntu bat izan zuen bere hizkuntzen lan plangintzaren inguruan, Hezkuntza Saitetik eskola proiektu eleaniztuna martxan jartzeko proposamena mahai gainean jarri zitzaien unean. Eskolaren ustez, proiektu hark ez zien euskarari eta euskararen egoera gutxituari behar zuten erantzuna ematen.



# GAIA: ESKOLHERRIAN EUSKARAZ

Ikasle euskaldun eleaniztunak hezteko proiektua

---

Gaiarekiko konpromiso eta hausnarketa prozesu zabal baten ondoren, eskolak hizkuntzekiko zituen helburuak, ondorioak eta lehentasunak finkatu zituen, egingo zuten bidearen atarian. Horien artean azpimarra daitekeen bat hau da: eskola bere markotik atera eta komunitatearekin lankidetzan aritzeko beharra; bai hizkuntzen jarreretan eragiteko, bai hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntza komunikatiboari eusteko eta bai euskararen erabileran aurrera egiteko. Izan ere, eskolak ezagutza bermatu behar duela argi zuten, baina baita ere ezin duela hizkuntzen irla izan. Alegia, ikasleek euskarazko espazio eta aukera berriak izan behar dituztela ikastetxetik kanpo.

Testuinguru horretan, Sortzenek martxan jarri zuen prozesu pilotuaren aukera udaberriko euria legez etorri zitzailela diote. Proposamen hark euskara eta haren erabilerara sustatzeko herria eta auzoa ere inplikatu behar zirela azpimaratzen zuen eta proiektuaren helburua zen euskaraz biziko diren hiztun eleaniztunak sortzea. Horrenbestez, euskara indartzeko egarri elkartu ziren ikastetxea, gurasoak eta udala, eta proiektuan bete-betean murgildu ziren.

## **Hizkuntza proiektuaren berrikuntza: euskaldun eleaniztunak sortzen**

2013-2014 ikasturtean hizkuntza proiektuaren marko teorikoa definitzeki ekin zioten eskolan. Euskal hiztun eleaniztunak helburu izanik eta egungo errealitatearen ezaugarri eta erreferentziak kontuan hartuta (ezagutzen aldakortasuna, egoeren konplexutasuna eta globalizazioaren jendartean bizi garela), helburu eta lehentasun batzuk markatu zituzten.

Behin helburuak finkatuta, prozesuari aurre egiteko zeregin eta erronka berriak jarri zituzten martxan: irakasleen prestakuntzan sakontzea, ikasleak prozesuan inplikatzeko eta, azkenik, hizkuntza jarreraren gogoeta prozesua herritarrengana zabaltzea. Beraz, prozesua hiru ardatz nagusiren inguruan eraiki zuten: irakasleak, ikasleak eta herria.

2014-2015 ikasturtean hiru ardatz horien inguruan egin zuten lan. Irakasleei dagokionez, haien prestakuntzan sakondu zuten eta hizkuntzaren didaktikarako oinarriak finkatu zituzten: testu generoen arabera irakaskuntza, hizkuntza eta edukiak uztartzeko beharra eta elkarrekintza oinarri hartuta. Sekuentzia didaktikoak diseinatu, gelara eraman eta grabatu egin zituzten, ikasleek egoera

errealen bidez ikas zezaten. Ondoren, grabaketak aztertu eta unibertsitateko prestatzailearen laguntzarekin horien inguruko hausnarketak egin zituzten. Ondorio gisa zera atera zuten: ikasleen gaitasun komunikatiboetan sakontzeko ezinbestekoa zela irakasleak elkarrekintza moduetan trebatzea, ahozko hizkuntzaren lanketa ikasgai guztietan egoki barreiatzeko.

Ikasleen ardatzari dagokionez, haien inplikazioa eta ahalduzkoa lortu nahi zuten. Horretarako, eskolan praktika egokiak bideratzen hasi ziren umeak, eta zenbait ekintzaren plangintzan eta kudeaketaren planifikazioan protagonista bihurtu ziren.

Herriaren ardatzari dagokionez, Herri Hezitzailearen prozesuan murgiltzea erabaki zuten. Hor aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzea markatu zuten helburu.

2015-2016 ikasturtean, irakasleen esparruan elkarrekintzaren metodo eta estrategien inguruan hasi ziren lanean. Aurreko ikasturtean hausnartutakoa egokitu eta elkarrekintzaren diseinuak txertatu zituzten ikasgai guztietan (Haur eta Lehen Hezkuntzan). Diseinu haiek gelara eraman, grabatu eta taldeko auto-behaketak egin zituzten. Helburua zen irakasleek kontzientzia hartzea haien egiteko moduek duten garrantziaz eta estrategia batzuk ezagutu eta aplikatzea ikasgelan (edozein ezagutza arlo lantzen denean), ikasleen komunikazio gaitasuna gartzan laguntzeko. Besteren artean, ze espazio sor daitezkeen hizketarako, espazio horietan zein elkarrekintza mota egin daitezkeen berbaldiak sakontzen eta aberasten laguntzeko, zein elkarrekintzak ematen duen bide ezagutza eraikitzeko eta abar.

Eskolako gurasoekin eta herritarrekin euskararekiko maitasuna transmititzea zuen helburu Dimako ikastetxeak. Horretarako, batetik, hizkuntzen inguruko hainbat lantegi eta gogoeta saio egin zituzten Topaguneko aholkularitzarekin. Bestetik, sentsibilizazio lantegiak eta trasmisioa lantzeko ekintzak ere egin zituzten. Esate baterako:

- **Euskararen kriseilua:** familiarrean euskararekiko kontzientzia handitzea izan zen metafora honen helburua. Kriseilua etxez etxe eramanez, euskararen sua jagon eta, euskararen erabileraren hausnarketa presente izatea lortu zuten familietan.
- **Guraso eta umeentzako lantegiak:** gurasoak eta umeak elkarrekin jolasten jarri zituzten. Euskara bizipen positiboekin lotzea zen helburua.



## GAIA: ESKOLHERRIAN EUSKARAZ

2016-2017 ikasturtean hizkuntza proiektuan jarri zuten foku nagusia. Klaustroa hizkuntza proiektuaren inguruko erabakiak hartzen joan zen eta sortzen joan ziren zalantza zehatzei erantzuteko HUIHEZIKo prestatzailearen laguntza izan zuten.

Klaustroak, taldean eta modu dialogikoan, erantzunak eraiki zituen, eta hartutako erabaki guztiak komunitateko eragile anitzekin izandako hiru saio monografikotan partekatu zituen. Bilera monografiko horietan hainbat ekarpen jaso ziren hizkuntza proiektuko txostenean jasotzeko, eta beste hainbat plan estrategikoan jasota geratu ziren, etorkizunean lantzeko.

### Ondorioak

Dimako herri eskolan ondorio nagusi bat ikusten diote egindako ibilbideari: eragile guztiak helburu bakar baten alde batu direla: euskara.

Urte hauetako ibilbidearen ondorioz herrian dinamika berri bat sortu da: herrian euskararen sustapenerako hainbat bilgune eta proiektu sortu dira, horien artean Abizarie euskara elkarte. Ibon Izak (Udaleko zinegotzi eta *Elemakarrak* film laburreko zuzendariak) hala esan zion *Bizkaiko Hitzari*: “Abizarie esaten zaio oiloari arrautzak errun ditzen jartzen zaion gezurrezko arrautzari (...). Hizkuntzara eramán dugu ideia: gezurretako gauza mordo egiten ari gara motibazioa indartzeko. Euskaraz hitz egin dezagun mezua zabaldu gurean ari gara, eta horretarako espazioak sortzen: ikuskizunak, abestiak... baina garaia da jendearen kontzientzietara jotzeko, hausnar dezagun zer egiten ari garen gure hizkuntzarekin. Gure esku dago. Norberak egin behar du hautua euskaraz bizitzeko”.

Horrez gain, Dimako Udala UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide egin da. Horrek argi uzten du administrazioan ere euskaraz bizi nahi dutela eta horren aldeko apustua egin dutela.

Prozesu pilotua amaitzeaz daudenean, hizkuntza proiektua dokumentu dinamiko eta etengabeko hobekuntzarako tresna gisa ulertuta, hainbat eremutan emaitzak ematen ari dela begi-bistakoa dela aipatzen dute. Berezik irakasleen prestakuntza ildo eta komunitatearen partaidetza nabarmentzen dituzte. Aitortzen dute momentu eta une guztiak ez direla ez intentsitate ez inplikazio berean gertatu, baina bidea egiteak sortu dituen asebetetzeak eta

gaiari eman zaion ikusmolde globala azpimarratzekoak eta erabat baikorrak direla diote.

Amaitzeko, zerbait nabarmentzekotan, talde-lanaren garrantzia aipatzen dute. Oso tresna eraginkorra dela frogatu dute prozesuaren harian, nahiz eta norbanako bakoitzak bere motxila daraman aldean.

### Erronkak

Aurrera begira, erronkarik ez zaie falta Dimako herritarrei. Alde batetik, hizkuntza eta kultura elkar harturik, “euskeraz bizi gura dogu” ildoan aurrera egin nahi dute. Euskara eta euskal kultur ondarea egunerokotasunaren ardatzean kokatu eta garatzea da helburua komunitateko eragile guztiek elkarlanean aurrera egiteko. Herrian ekimen kulturalak asko eta askotarikoak dira urtean zehar, baina horiek eskolako curriculumarekin uztartzeko saiakera egin gura dute. Eta ahal den neurrian, ekimen horiek komunitatearekin batera landu nahi dira (ez komunitatearentzat, harekin elkarlanean baizik).

Bestetik, hizkuntzak ikasteko eta irakasteko metodologia komunikatiboak geletan txertatzea da hurrengo ikasturtearako erronka. Horretarako, irakasleen prestakuntzarekin jarraituko dute: berrikuntza pedagogikoan sakondu eta proiektu bidezko metodologian trebatu.

Dimako eskolak argi du zein diren ibili beharreko bidearen zimenduak: elkarlana, konpromisoa, partaidetza oinarritutako berrikuntza metodologiko-didaktikoak eta euskara eta bere etorkizuna komunitate osoaren eta norbanako guztion ardura izatea.



# Hizkuntza proiektua idazteko gida praktikoa

Sortzenek edozein ikastetxe eta herri zein auzori hizkuntza proiektua idazteko baliagarri izan dakioken gida praktikoa egin du. Hurrengo lerroetan laburbildu dugu gidaren mamia.

## 1. Prozesuaren deskribapena

1.1. Hizkuntza proiektuaren garapenerako sentsibilizazio-lana egin eta baldintzak sortzea

Lehen urrats honetan, ikastetxearen eta ikastetxea dagoen herriaren ezaugarriak aztertu beharko dira, eta horren arabera planifikatuko da egin beharreko lana. Izan ere, sentsibilizazio-lana eta proiektu arrakastatsu bat egiteko baldintzak desberdinak izango baitira leku batetik bestera. Egin nahi den hizkuntza proiektuak proiektu integrala eta adostasun zabalekoa izan behar duenez, ezinbestekoa da ikastetxetik kanpoko sarea ere lantzea, eta herritar zein eragileen inplikazioa hasieratik bilatzea. Ildo horretan, abiatuko den prozesuaren berri ematea eta gogoeta partekatua egitea izango da lehen lana, gero elkarlanari bide emateko.

Beraz, ikastetxe barruan eta kanpoan, bieran egin behar da lan, interes-talde edota eremu desberdinetan bilera bereziak eginez, besteak beste, ikasleekin, irakasleekin, gurasoekin, udalarekin eta herri-eragileekin. Herri-eragileak aipatzean, multzo anitzari egiten zaio erreferentzia: kultur eragileak, ikastetxeak, guraso elkarteak, aisialdirako taldeak, musika eskolak, kirol taldeak, kiroldegia, kultur etxea...

## 2. Lehenengo fasea

2.1. Aurrelanak

Lehenik eta behin, ezinbesteko eragileak izango direnekin bildu behar da:

- **Eskola-komunitatearekin:** klaustroaren eta ikastetxeko Eskola Kontseiluaren oniritzia eta inplikazioa ezinbestekoa denez, lehenengo lana izango da egitasmoa aurkeztea, proiektuaren helburuak haiekin partekatzea eta parte hartzeko euren oniritzia eta atxikimendua jasotzea.
- **Herriko/auzoko eragileekin:** hizkuntza proiektuaren beste zutabea herria/auzoa da, beraz, inguruko eragileei (batez ere aisialdi, kirol elkarte, musika eskola... ikasleekin harremana duten eragileei) egitasmoa aurkeztu, proiektuaren helburuak partekatu eta parte hartzeko

euren oniritzia eta atxikimendua jaso behar dira.

- **Lanerako egiturak eta funtzionamendua:** ikastetxe bakoitzean prozesua definitzeko eta urrats bakoitza nola eman erabakitzeko, hainbat pertsona edota talderen inplikazioa behar da: zuzendaritza, klaustroa, etapako edota mailakako irakasleak, pedagogia batzordeak, gurasoak, langileak, ikasleak... Halaber, herrian/auzoan udalaren parte-hartzearekin antolatzen diren taldeekin ere lan egin behar da. Horretarako, ezinbestekoa da ikastetxean proiektuaren arduraduna izendatzea eta bere lana betetzeko orduak esleitzea, bai eta ikastetxe bakoitzean prozesuaren jarraipena egingo duen hizkuntza batzordea sortzea ere.
- **Komunikazioa:** bereziki zaindu beharko da mezuen egokitasuna eta komunikazio bideen zein komunikazio moduen eraginkortasuna, ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan prozesuak.

2.2. Sentsibilizazio-lana

Ikastetxea eta herriko/auzoko eragile zein norbanakoan artean gogoeta partekatu eta zubiak eraikitzeko, beharrezkoa da sentsibilizazio-saioak antolatzea honako bi eremu haue-  
tan:

- **Eskola-komunitatearekin egin beharrekoa:** eskola kontseiluaren bilera izan daiteke, baina komunitate guztiari deialdi irekia eginez. Eskola-komunitate osoari eman behar zaio hizkuntza proiektuaren helburu eta garapenerako prozesuaren berri, eta beraien inplikazioa eskatu. Metodologia: proiektuaren beharra azaldu eta bere garapenerako prozesuaren berri emango duen aurkezpena egitea komeni da. Talde dinamikaren bidez eta galdetegi baten laguntzarekin hausnarketa bultzatu. Erantzunak jaso, denen artean aztertu eta ondorioak atera. Ikasleei haien adinari egokitutako sentsibilizazio-saioa prestatu behar zaie.
- **Herriano/auzoan egin beharrekoa:** hizkuntza proiektuaren helburua eta beharra azaltzeko aurkezpena egin elkartetako, ikastetxeetako eta udaleko ordezkariekin. Talde dinamikaren bidez eta galdetegi baten laguntzarekin hausnarketa bultzatu: hizkuntza proiektuaren beharra ikusten da? Zer iruditzen zaizue eskola, herriko/auzoko elkarte/eragile eta udalaren arteko elkarlana sustatzea, edo dagoena indartzea? Horretarako prest zaudete? Prozesuari ekarpenik egin nahi al diozue zuen

## GAIA: ESKOLHERRIAN EUSKARAZ

eremuko errealitatek abiatuta? Erantzunak jaso, denen artean aztertu eta ondorioak atera.

## 2.3. Diagnostika

- **Diagnostika osatu:** hurrengo urratsa, bai ikastetxean, bai, oro har, hizkuntzen egoeraren berri izateko datu-bilketa egitea izango da. Datuak jasotzeko hainbat bide erabiliko dira:

- Ikastetxeek eskuragarri jarritako dokumentazioa: aurretik landutako hizkuntza proiektua (baldin badago), ikastetxeko hezkuntza proiektua, ikastetxeko curriculum proiektua...
- Lan-saioak
- Galdetegia: eskola-komunitatean zein eskola-komunitatek kanpo, herriko bizilagunen artean zabalduko da, euskararen ezagutza eta erabileraren ingurukoa, eta datu kuantitatiboak eta kualitatiboak jasotzeko baliatuko da. Galdetegia edozeinen eskura egongo dela eta betetzeko erraza izango dela bermatu behar da.
- Elkarte/eragileen errealitatea eta iritzia jasotzeko harreman-dinamika: harreman horien bidez auzoko/herriko elkarte/eragile bakoitzak eta baita bere berezero/bazkideek euskararekiko daukaten jarrera eta erabilera ere neurtuko dira.
- Herriko euskararen egoeraren diagnostika: udalari eginga lukeen herriko euskararen egoeraren diagnostika eskatuko zaio.

- **Diagnostikarako lan saioak:** eremu eta partaideen arabera joango dira gauzatzen:

- Eremu pedagogikoa: irakasleak: ikasturtean hiru bilera aurreikusten dira, bakoitza ordu eta erdiko, honakoak lantzeko: hizkuntzen inguruan ikastetxean egindako ibilbidearen urrats nagusiak berrikustea eta indarguneak eta hobetu beharrekoak identifikatzea. Irakasle guztiek hartzen dute parte.
- Eremu pedagogikoa: ikasleak: talde bakoitzarekin ordu eta erdiko bi saio, honakoak lantzeko: euren esperientzia eta bizipena euskararekin, bizitzako esparru bakoitzean erabiltzen duten hizkuntzaren kontzientzia izatea, eta ikastetxean lantzen dituzten hiru hizkuntzen inguruko jarrerak aztertzea.
- Familiak: ordu eta erdiko bi saio, ondorengo helburuarekin: gurasoek euskararekin izan duten harremana berrikustea, eta hainbat esparrutan (ikas-

tetxean, etxean, kalean...) hizkuntzek betetzen duten espazioa identifikatzea; eta guraso gisa herrian indarguneak eta hobetu beharrekoak identifikatzea.

- Herri/auzo eremuko eragileak: nahiz eta eragileekin banakako harremanak egin beraien eremu dagozkien datuak jasotzeko eta diagnostika osatzeko, komenigarria da guztiak bildu eta lan-saioa egitea jasotako datuak denen artean aztertu eta denek errealitatearen ikuspegi osoa izateko.

## 2.4. Diagnostikaren emaitzak plazaratu eta plan estrategikorako helburuak zehaztu

Hizkuntza batzordeak antolatuko ditu eremu ezberdinetan egindako diagnostikaren emaitzak bildu, aztertu eta gizarteratzeko saioak. Bat eskola-komunitatearekin eta bestea herri/auzoan. Ondoren, diagnostikaren emaitzak oinarri hartuta, plan estrategikoa egin behar da. Besteak beste, hizkuntza proiektuaren norabide eta erronkak proposatuko dituen eta horien garapena diseinatu eta zehaztuko duen plana izango da. Plan horrek hizkuntza proiektua idazten lagunduko du. Plan estrategikoa hizkuntza batzordeak eta auzoko/herriko euskara batzordeak egingo dute, eta eskola-komunitatearekin adostuko dute.

## 3. Bigarren fasea: hizkuntza proiektuaren idazketa

Fase honek iraupen mugatua izango du eta helburu nagusia hizkuntza proiektua idaztea izango da, Sortzenek definitutako markoa oinarri izanik. Dokumentu dinamikoa izango da, esperientzia praktikoak eta helburu berriek markatuko dutena, ekarpen berriekin aberasten joango dena. Gainera, hezkuntza komunitatearentzat zein auzo eta herritarrentzat ulergarria izan behar du, horiek baitira proiektuaren hartzaile eta eragileak, eta proiektu instituzional hori ulertzeko, ekarpenak egiteko eta gauzatzeko protagonista direlako. Ezin da ahaztu, fase honetan, lan pedagogiko-didaktikoaz gain, herria/auzoa ere lanean sartuak direla, eta ikastetxean hizkuntza proiektua garatzen joango den bezala, herri/auzoan hizkuntza plana zehazten hasita direla. Izan ere, herria/auzoa eta ikastetxea bat dira proiektu honetan. Batak eta besteak batera joan behar dutelako, hizkuntza proiektuak ezarritako helburua bete dezan nahi izanez gero. Ikastetxean hizkuntza proiektu egokia izateak ez du ikasle euskaldun eleaniztunik ziurtatzen, aldi berean kalean euskararen erabilerarako baldintzak bermatzen ez badira. Horixe da proposamen honen oinarri-oinarrian dagoena, proiektu honen berezitasuna. Beraz, elkarlanean arituko diren bi eremu daude fase honetan: ikastetxe barrukoa eta ikastetxetik kanpokoa.



“Normaltasunez hitz egin behar dugu suizidioari buruz. Besterik gabe, gerta litekeelako”

# ELKARRIZKETA: AGUSTIN ERKIZIA

---

## BIZIRAUN ELKARTEKO KIDEA

15-29 urte bitarteko gazteen artean suizidioa da heriotza kausa nagusia. Trafiko istripuz hiltzen direnen bikoitza hiltzen da bere buruaz beste eginda. Sufrimendua, sufrimendu handia izan ohi dute suizidatutako pertsonak. Eta baita haien heriotzak minduta gelditzen direnek ere. Horren jakitun da Agustin Erkizia, Biziraun Elkarteko kidea. 17 urteko Joseba semea suizidatu zitzaion duela ia 5 urte. Eta orain dela urtebete Biziraun Elkartea

sortu zuen beste batzuekin batera; maite dugun norbaiten suizidioak mindutako pertsonen elkartea. Besteak beste, egoera horretan dauden pertsonari laguntzeko eta hitz egiteko aukera emateko sortu zuten. Maila edo egoera berean daudenekin hizkuntza berean hitz egiteak eta partekatzeak on egin dezakeelako. Hitz egiteak mina arindu dezakeelako. Hitz egiteak suizidio batzuk saihestu ditzakeelako.



**Zerk bultzata sortu zenuten Biziraun Elkarte, maite dugun norbaiten suizidioak mindutako pertsonen elkarte?**

Besteak beste, suizidio bidez hil diren pertsonen inguruan gelditu garenontzako ez zegoelako ezer Euskal Autonomia Erkidegoan. Nafarroan bai, guk baino urtebete lehenago sortu zuten.

Guri duela ia 5 urte hil zitzaigun Joseba semea bere buruaz beste eginda. Geure kasua edo egoera norbaitekin partekatze beharra ikusi genuen, norberak daukan zama hori pixkat arintzearen. Bartzelonan eta Madrilén ibili ginen, baina hemen ez zegoen aukerarik. Eta horregatik sortu genuen.

Gure helburu nagusia suizidio bidez hil diren ingurukoak elkartu eta hitz egitea da. Momentuz ez dugu lokalik. Tokian tokiko talde txikiak sortuko balira, han elkartuko ginatke, udalari lokal bat eskatuta. Bilbon, esaterako, otsailaren 1ean elkartu berri gara eta hilean behin biltzea nahi dugu. Ordu eta erdiko formatua izango dute saioek. Elkarri laguntzeko taldea izango da, beste gaitzetan

dauden moduan. Maila bereko sufrimendua dutenentzat.

**Maila bereko egoera eta sufrimendua dutenekin elkarteaz azpimarratzen duzu. Doluaren inguruan jada sortuta dauden taldeek ez dute balio?**

Ez da gauza bera.

Maiz gertatu zaigu aditu batengana joan eta hura erlojuari begira egotea. Orduan, zeure buruari galdetzen diozu: “honek ulertzen ote du ni nola nagoen?”. Ez, ez dizu ulertu, nahiz eta berak baietz esan, ez da jabetzen zein egoeratan zauden zure lekuan ezin daitekeelako jarri.

Horregatik diot esparru berezia behar duela. Maila berekoekin elkartu nahi dugu, hizkuntza berean hitz egin, horrela ulertzen baita zer esaten den.

Ez dugu esaten besteek baino sufrimendu gehiago edo gutxiago dugunik, baizik eta maila berekoa nahi dugula. Zeren guk badakigu honek zer sufrimendu maila duen, besteek ez. Beraz, haiekin ezin dugu modu berean hitz egin. Istripuz semea edo alaba galdu duenak ere sufrimendu handia izango du, dudarik gabe,

baina nik ez dakit nolako den sufrimendu hori. Nik dakit suizidio bidez hiltzen denean zer sufritzen den.

Gu batzen gaituena sufrimendua da, suizidio bidez hil diren ondoan gelditu garenon sufrimendua. Zeren noraezean zaudenean, zulo beltz baten aurrean aurkitzen zara. Galdera asko hor geldituko dira erantzunik gabe, baina, noski, egunak 24 ordu ditu, eta bizitzari aurre egin behar zaio, eta ez dakizu nola. Eta inork ez dizu esaten. Zeren, gu, berez, ez gara gaixoak. Gu osasun zerbitzu baten aurrean ez gara gaixoak, eta noski, psikiatria zerbitzuren batera eramaten bazaituzte pilula batzuk emango dizkizute. Baina arimaren min hau, barruko min hau, ez dute pilulek sendatzen.

**Garrantzitsua al da hitz egitea? Ona al da?**

On egin dezake ongi kudeatzen bada: pertsona egokiekin, momentu egokian eta behar den bezala tratatuta. Sufrimendua arindu dezake hitz egiteak. Sufrimendua beti hor egongo da; gauza da nola egin eramangarriago. Ezin dezakegu pentsatu hitz egitearekin besterik gabe sufrimen-

dua desagertu egingo denik. Ez. Sufrimendua eramaten ikasi behar da. Batek Madrilen esaten zuen bezala, “sufrimendua kudeatzen ikasi behar duzu, ez zaitu blokeatu behar bizitza berriari aurre egiteko”. Hori jada kezkagarria izango litzateke. Bizitza normala egiteko sufrimenduak pertsona bezala guztiz baliorik gabe uzten baldin bazaitu, hor arazo larri bat daukazu. Jakin behar duzuna da hori kudeatzen, eta horretarako bide desberdinak egon litezke.

Isiltasuna izan daiteke bat. Ni, pertsonalki, isilik egon naiz zenbait urtetan, eta gero, hitz egiteko beharra sentitu dut, partekatzeko, eta horrek neurri batean on egin dit. Beste batzuek zera esan ziguten: “Guri gertatu zitzaigun eta ez dugu hitz egin nahi gai horretaz”.

Suizidatu den pertsona baten inguruan gelditu direnek normalean ez dute hitz egiten suizidatu den pertsona horri buruz, mina izugarrikoa delako, handiegia. Eztanda egin du horrek, bonba bat izango balitz bezala. Kaltetu dezente daude inguruan, baina kalte horri aurre egin nahi zaio kaltea edo mina sorrarazi duen pertsonaren aipamenik egin gabe. Aipatze hutsak min hori areagotu egingo duela pentsatzen da. Eta nik uste dut kontrakoa dela. Hitz egitea lan terapeutiko bat dela norberarentzat: zergatik egin du? Zer iruditzen zaizu? Lan terapeutiko horretan, hitz egite horretan, lasaitu egiten gara, askatu egiten gara, min hori pixka bat arindu egiten zaigu. Minak hor jarraituko du, noski, pertsona bat joan zaigulako, baina arindu daiteke.

Aditu batengana ere joan zaitezke. Hark bere pautak emango dizkizu, bere pilulak emango dizkizu, baina hitz egin ezan hor geldituko zaizu zure motxila. Eta pentsatzen dut motxila horrek bere lana egingo duela.

Noski, hitz egin nahi ez duena errespetatu egin behar da, beti. Baina hitz egin nahi duenari, aukera eman. Aukera eman eta hitz egin nahi ez badu, bale, errespetatu. Baina arazoa da ez dagoela aukerarik.

### **Hitz egin bai, baina norberaren erritmoa errespetatuz.**

Hori da. Isiltasunak ere bere ekar-

pena egiten du. Orain dela gutxi Biziraunera jo duen batek hala esan digu; duela 16 urte suizidatu zitzaizela aita eta momentu honetara arte ez duela hitz egiteko beharrik sentitu. Aldiz, orain, beharra sentitu duela eta bileraren bat-edo antolatzen badugu, joan egin nahiko lukeela. Besterik gabe, on egiten diolako.

Nire iritziz, ez dago eperik, ez dago datarik, ez dago protokolorik non esaten den “suizidatu eta astebetara hasi behar duzue hitz egiten”. Ez. Bakoitzak bere erritmoa dauka eta hori errespetatu egin behar da, bai baitakigu zer-nolako mina dagoen horren atzetik.

Aukera eman, behintzat, jendeari. Eta bakoitzak ikusiko du bide hori ireki nahi duen edo ez. Baina aukera egotea garrantzitsua da.

**Datu ofizialak ezagutzen ditugu: Hego Euskal Herrian 230 pertsonak egin zuten beren buruaz beste 2015ean. 2016an, aurreko urtean baino 9 pertsona gehiagok. 15-29 urteko gazteen artean horixe da heriotza kausa nagusia. Munduan egunean 2.500 suizidio eta 60.000 ahalegin baino gehiago. Biztanleriaren % 10ak aztertu du inoiz aukera hori. Trafiko istripuz hildakoen bikoitza hiltzen da bere buruaz beste eginda. Genero indarkeriak sortutakoak baino 60 aldiz gehiago. Eta halere, gai tabua da. Nola uler daiteke hori?**

Gai tabua da zeren gure gizartean heriotzaren gaia tratatzeko moduan atzera egin dugula uste dut. Gure gizarteak aurpegiaren alde bati soilik begiratzen dio: aurpegi polit, lirain, eder, elegante... Hipokresia handiarekin bizi den gizartea da. Denok lirain egon behar dugu, denok estereotipo konkretu batekin... Ba ez. Zorionez gizartea hori baino anitzagoa da.

Guregana hurbildu ziren lehendabizikoak etorkinak izan ziren. Zergatik? Gauza normal bezala ikusten dutelako, gure bizitzarekin lotzen duten zerbait delako heriotza. Etorkinek hurbildu eta besarkada bat eman ziguten.

Orduan, batetik, orokorrean gizartea dago. Eta, bestetik, suizidioa bera. Uff... Oso gogorra egiten zaigu. Eta gaztea bada, are gogorragoa.

“Hitz egin nahi ez duena errespetatu egin behar da, beti. Baina hitz egin nahi duenari, aukera eman. Hitz egiteak on egin dezake ondo kudeatzen bada: pertsona egokiekin, momentu egokian eta behar den bezala tratatuta”

“Gazteek ere hitz egin behar dute suizidioaz. Batetik, beraien artean. Bestetik, maila edo egoera berekoekin. Joanesek (gure beste semeak) egunen batean norbaitekin hitz egingo duela iruditzen zait, bere testigantza emanaz. Seguru nago gazte bat suizidatzen bada, haren lagunen artean Joanesek emango duen mezua oso ona izango dela. Mesede handia egingo diela”



Bi horiek uztartuta ulertzen dut tabua izatea. Baina hori balitz soluzioa... Ez, datuek ez digute hori erakusten. Argitaratu diren azkeneko datuen arabera (2016koak) Euskal Autonomia Erkidegoan suizidio bidez hil direnen kopuruak gora egin du. Bizkarra emanda bizi izate horrekin ez dugu arazo hau soluzionatuko.

Horregatik, aurre egin behar diogunez, normaltasunez hitz egin behar dugu heriotzari buruz, eta heriotza horien artean suizidioari buruz ere bai. Besterik gabe, gerta litekeelako.

### **Nolakoa da dolua horrelako egoera batean? Gazte baten suizidioaren ondoren, nola gelditzen dira familiakoak eta lagun gazteak?**

Dolu guztiak eta bakoitza da desberdina. Eta bakoitzaren doluak ere gorabehera handiak izaten ditu. Ni ez naiz ausartzen batzuk erraztasun handiarekin esaten dutena esaten; doluan jarraitu beharreko prozesua edo protokoloa hau da. Niretzat ez du ezertarako balio. Aholku batzuk eman daitezke, baina bakoitzak bere bidea egin behar du.

Hasteko, min handia ematen du ulertu ezinak, galdera ikurrez betetako egoera baten aurrean aurkitzen zara. Eta bestetik, guraso bezala, erru

sentimendua ikaragarria da. Ikaragarria da, eta hor egongo da betiko. Ez hasierako intentsitate berarekin, baina segun zein momentutan eta zein testuingurutan atera egiten da eta bere eragina dauka.

Norbera ere ez dago aurreko egoera berean. Gertatzen dena da gizarteak hori ez duela ulertzen. Ez du ulertzen haustura bat egon denik, ezinezkoa dela zu lehengoa izatea, zure bizitzako zutabe bat joan egin dela. Gu lehen lau hankako mahaia ginen eta orain hirukoa. Eta gure mugimenduak ez dira lehengo berak. Gure lehentasunak guztiz aldatu dira.

Nik ulertzen dut gizartearen erreakzioa lehengo egoerara itzul gaitezen dela. Ezinezkoa da, baina. Eta hori ulertu eta onartzea kostatu egiten da.

Eta norberak ere bere neurriak hartzen ditu babesteko. Babeste prozesu horretan oso selektiboa bihurtzen zara. Hori kudeatzea ez da erraza ez guretzat eta ez gizartearentzat. Hurbiltze horretan ere lan handia egin beharra dago.

Eta lagunaren artean ere erru sentimendua geratzen dela uste dut. Josebaren kasuan, sare sozialetako mezuak zeuden, berak eta lagunek idatziak. Pentsa ze sentimendu

sortuko ziren gertatutakoa gertatu ondoren. Eta inolako erantzunik gabeko galdera ikur pila bat gelditzen dira: zergatik joan zinen? Zer arrazoirengatik? Zerk eragin zizun mutur horretaraino iristea?...

### **'Zergatik?'-etik 'zertarako?'-ra pasatzeak laguntzen al du?**

Hori da teoriak dioena. Eta nik uste dut baietz, laguntzen duela. Zeren egunak 24 ordu ditu, eta egun guztiek 24 ordu dituzte. Oso luzea da. Luzeezia.

Teorian badakigu *zergatik?*-etik *zertarako?*-ra pasatzeak galdera ikurak desagertzeko edo gutxitzeko balio duela. Baina hori nola egiten da? Nola pasa batetik bestera? Gure kasuan Biziraun horren lekuko da? Alegia, guk elkarte hau sortu izanak zertarako horri erantzuten ote dio? Neurri batean bai.

Guk zentzu bat aurkitu nahi diogu Josebaren heriotzari. Bera joan izanak zerbaitetarako balio behar izan duela pentsatu nahi dugu. Bestela, haren heriotza alferrikakoa izan da. Joan eta kito? Besterik gabe lurpean sartu eta kito? Bada ez. Guk erantzukizun bat badugu gizartearen aurrean: "Aizue, merezi du gai honetaz hitz egiteak ere, nahiz eta oso gogorra eta



oso mingarria izan”. Orduan, neurri batean Biziraunek horri ere erantzuten dio, *zertarako* horri.

### **Ondorengo lana, hitz egitea. Nola landu gazteekin ondorengo egoera hori?**

Nik uste dut beraien artean ez dutela gai honi buruz hitz egiten.

Baina aterako da, Joseba ez da hor geldirik egongo. Zergatik ez dugu Joseba aipatuko? Zergatik utzi nahi dugu hor lurperatuta? Ez. Auto istripuz hil balitz hitz egingo genuen. Gure semea zen, pertsona bat zen. Eta pertsona moduan badu duintasuna, ez dezagun lurperatu eta besterik gabe hor utzi.

Beraz, gazteek ere hitz egin behar dute. Batetik, beraien artean. Eta bestetik, maila edo egoera berekoekin. Joanesek (gure beste semeak) egunen batean norbaitekin hitz egingo duela iruditzen zait, bere testigantza eman ez. Adin berekoen artean, “niri hau gertatu zitzaidan” esanda. Seguru nago gazte bat suizidatzen bada, haren lagunen artean Joanesek emango duen mezua oso ona izango dela. Mesede handia egingo diela. Beraz, bide hori egiten saiatu beharko genuke. Heriotza hor egongo denez, hitz egin dezagun.

### **Ikastetxetan zer egin izan da orain arte gazteekin? Zerk balio du? Zerk ez?**

Zenbait kasutan adituren bat ekarri eta hark hitzaldi bat eman izan du. Baina askoz ere eraginkorragoa eta mesedegarriagoa da egoera hori bizi duen norbaiten testigantza. Begira, ni ez naiz gai honetan katedraduna, baina sufrimenduan bai, sufrimenduan katedraduna naiz. Eta nik badakit norbaiti gertuko bat suizidatu bazaio, zer-nolako sufrimendua daukan. Horregatik diot gazteengana ere egoera berean dagoen norbaitek joan beharko lukeela.

Duela gutxi unibertsitateko irakasle bat nirekin harremanetan jarri zen. Bere irakasgaiko ikasketa-planean suizidioa agertzen zen eta gai hori landu zutenean mutiko bat oso urduri jarri zela ikusi zuen. Zer gertatzen zitzaien galdetu zion. Bada, 19 urterekin begirale zela, 15 urteko mutiko

batek bere buruaz beste egin zuen. Entrenamendutik lehenago irteteko eskatu omen zion, etxera joateko etxerako lanak egitera. Eta hori aprobe txatu omen zuen suizidatzeko. Izugarriko erru sentimendua zeukan, ez zelako gai izan ulertzeko.

Irakasle horrek deitu zidan eta ordubete egon nintzen gazte horrekin hizketan, erru sentimendu hori arindu nahian. Azaldu nion ez garela erabakiorrak, inor ez garela erabakiorrak. Ez zezala pentsa hori detektatu ez zuelako suizidatu zenik. Bera ez zen erabakiorra izan. Hitz egitearekin pixka bat lasaitu zela esango nuke.

### **Biziraunen beste ildo bat prebentzioarena da. Suizidioak prebeni daitezke?**

Segur aski batzuk bai, denak ez. Baina bizitza bat salbatuta, niretzat nahikoa litzateke.

Suizidatu diren pertsona denek dute faktore komun bat: sufrimendua, sufrimendu handia. Sufrimendurik gabe bakoitzak bere buruari ez dio horrelako minik egiten. Sufrimendua dago, eta sufrimendu horri bukaera emateko bilatzen duten modu bakarra da suizidioa.

Pentsatzen dute euren sufrimenduak besteen sufrimendua eragiten duela eta sufrimendu hori eteteko modu bakarra dela eurak erditik kentzea. Eta justu kontrakoa da; jakingo balute zer sufrimendu sorraziko duten suizidatuta, gehiengo batek ez luke egingo. Horren jakitun izango balira, seguru nago gehiengoak ez lukeela egingo.

Badago portzentaia bat aurretik arazoak izaten dituenena. Baina beste portzentaia bat inolako arazorik ez zuena izan ohi da. Une batean pentsatzen dute eta garbi ikusten dute: hauxe da irtenbidea eta kito. Arazo bezala ikusten dute euren burua eta idatziz ere uzten dute: “ez dut arazo izaten jarraitu nahi. Hau ezin dezaket sufritu. Arazoa ni naiz; beraz, ni kenduta arazoa bukatuko da”.

Oso gutxi dira arrastorik uzten ez dutenak. Arrastoak uzten dituzte: sare sozialetan, gutunetan... Gauza da identifikatzen jakin behar dela. Eta arrasto horiei tiraka, posible litzateke batzuetan suizidioa saihestea.

“Gazteen kasuan sare sozialak dira suizidioak detektatzeko era oso garrantzitsu bat”

“Garrantzitsua da arrastoak detektatzea eta hitz egitea. Beraiengatik arduratzea eta zer moduz dauden galdetzea. Eta esatea badaudela beste irtenbide batzuk”

“Gazteek sare sozialetan uzten dituzten arrastoak jarraitzea posible da teknologikoki eta hori egiteko aukera egon beharko luke. Baimendutako pertsonak izan daitezela, horretara bideratutako erakundeak... beharrezko neurriak hartuta. Merezi du legalki ahalbidetzeko saiakera egiteak, bizitza salbatzeko da!”

“Eskola batean ikasle bat suizidatu zitzaien eta hitzaldia eman behar zuenak gonbidatu egin gintuen. Bada, gero, zuzendariak-eta betoa jarri ziguten, alarma egoera sor zezakeelako. Hitzaldia zen gainerako neska-mutikoen gurasoak nola hurbildu suizidatutako gurasoengana. Gu testigantza ematera gindoazen, laguntzera. Gogorra egin zitzaigun horretarako aukerarik ez edukitzea”



### **Nola detekta daitezke arrasto horiek?**

Gasteen kasuan sare sozialak dira suizidioak detektatzeko era oso garrantzitsu bat. Erreminta sozialak diren heinean, babes sare eraginkorra osa dezakete, bai familiaren babesa eta bai lagun taldearena. Talde bateko kide izateko, integratzeko eta egokitzeko balio dezakete.

Informazio egokia bideratzeko kanala izan daitezke: informazio-iturri fidagarriak eta benetakoak erabiliz, estatistikak dagokion bezala interpretatuz, informazio exajeratuak saihestuz, arrazoi sinpleak ez emanez, errudunak ez bilatuz, suizidioaren deskribapen zehatzak ekidinez... Prebentzioarako balio duen informazioa

zabal dezakete: zein diren arrisku faktoreak, babes faktoreak, suizidioari buruzko mitoak, alerta seinaleak (hitzezkoak eta ez-hitzezkoak)...

“Itxaropenaren telefonoa” lan handia ari da egiten Facebook-en. Edozein nabigatzailetan norbaitek hitz zehatz batzuk idazten baditu (suizidioa, heriotza...), agertzen den lehen aukera “Itxaropenaren telefonoa” da.

Baina ez da nahikoa. Haratago joan behar da. Hasteko, hizkuntza desberdinetan jarri behar da, tartean euskaraz.

Horrez gain, nahiz eta gazte bati telefono zenbaki hori agertu, zaila da deitzea. Prozesuak alderantzizkoa izan beharko luke; beste aldean

dagoenak jarri beharko luke harremanetan gaztearekin. Sare sozialetan suizidioa edo antzeko hitz bat agertzean, nonbaiten alerta gorria agertu beharko litzateke, jakin nork idatzi duen, jarraipena egin eta harekin harremanetan jarri galdetzeko “aizu, zerbait gertatzen zaizu?”, “zer moduz zaude?”... Eta horrekin, zenbait momentutan nahikoa litzateke. Josebari deitu zion azken pertsonak “Joseba, ondo zaude?” galdetu zion. Eta erantzuna izan zen, “Eskerrik asko nigatik arduratzeagatik”. Horrelako beste pare bat edo hiru jaso izan balitu, seguraski Josebak buelta emango zion. Zeren momentu bateko kontua da. Hor obsesionatuta daude, eta obsesio horretan daude, hor daude, hor dau-

de, hor daude... eta buf! joaten dira.

Gazteek sare sozialetan uzten dituzten arrastoak jarraitzea posible da teknologikoki eta hori egiteko aukera egon beharko luke. Baimendutako pertsonak izan daitezela, horretara bideratutako erakundeak... beharrezko neurriak hartuta. Merezi du legalki ahalbidetzeko saiakera egiteak, bizi-tza salbatzeko da!

Sare sozialez gain, gazteen artean ere gai honetaz hitz egiteak balioko luke prebentziorako. Adin horretan gurasoak gara azkena enteratzen garenak. Euren artean komunikatzen dira eta guregana berandu iristen da. Orduan, suizidioaren gaia ere sartu beharra daukagu gazteen hizketagai modura. Gertatzen delako.

Horregatik da garrantzitsua arrastoak detektatzea eta hitz egitea. Beraiengatik arduratzea eta zer moduz dauden galdetzea. Eta esatea badaudela beste irtenbide batzuk.

### **Gazteen arteko prebentzioaz gaiz, zein beste arlotan landu beharko litzateke gaia?**

Denok egin behar dugun zerbait da, denok galtzen baitugu gizarte bezala. Horregatik, plana zabalagoa da. Eta, aldi berean, simpleagoa ere bai normalizatzen hasiko bagina. Gakoa hor dago: hitz egin dezagun. Eta pertsona bat triste dagoenean, agertu diezaio-gun gure interesa: “Zer gertatzen zaizu? Lagundu zaitzaket? Zein da buruan bueltaka darabilzun hori?...”

Edonola ere, guk ikusten dugun zer egin daitekeen hainbat arlotan: hezkuntzan, osasunean, segurtasun indarretan, komunikabideetan, ikerkuntzan...

### **Goazen arlo horiek banaka aipatzera. Hezkuntza, adibidez. Zer egin daiteke arlo horretan gazteen suizidioa prebenitzeko?**

Esaterako, ikastetxe batean ikasle batek bere buruaz beste egin zuen eta zerbait egin behar zutela ikusi zuten. Bertako orientatzailea etorri zitzaigun. Gure ikuspegia eta testigantza ezagutu nahi zituen. Eta ondoren berak landu zuen eskolakoekin.

Hitzaldiak ere antola daitezke: gurasoentzat, ikasleentzat... Kontua da gaiak hitz egitea. Zeren kontrakoa

ere gertatu izan zaigu. Eskola batean ikasle bat suizidatu zitzairen eta hitzaldia eman behar zuenak gonbidatu egin gintuen. Bada, gero, zuzendarriak-eta betoa jarri ziguten, alarma egoera sor zezakeelako. Hitzaldia zen gainerako neska-mutikoen gurasoak nola hurbildu suizidatutako gurasoengana. Gu testigantza ematera gindoazen, laguntzera. Gure mezua zen: etorri lasai, hitz egin, hurbildu, eman besarkada bat, negar egin behar bada negar egin... ona da, bai zuentzat eta bai guretzat. Beharrezkoa dugun zerbait da. Gogorra egin zitzaigun horretarako aukerarik ez edukitzea.

### **Etxeetan, kalean... zer egin daiteke?**

Beste gaiak ateratzen diren bezala, gai horretaz ere hitz egin behar da, edo ez ezkutatu. Gure etxean ere denetarik hitz egiten zen, baina suizidioaz inoiz ez. Gainera, beti pentsatzen dugu bere buruaz beste egiten dutenak etorkizun beltza ikusten dutenak direla, kili-kolo dabiltzanak, droga mundukoak, beti baztertuta egon direnak, bere burua gutxietsia izan dutenak... Eta beti ez da horrela.

### **Zer egin daiteke osasun etxeetan?**

Bere buruaz beste egiteko saiakera egin duenari telefonoz deitzea eta interesa agertzea ez da asko kostatzen. Horrelakorik ez da egiten. Esperientzia pilotu batzuk egin dituzte Donostialdean Andrea Gabilondok-eta, baina ez dago orokortua. EAEn ez dago suizidioaren prebentzio planik.

Osasun publikora iristen diren pertsona horiek detektatu egin behar dira eta jarraipen bat egin behar zaie. Eta jarraipena ezin liteke izan pilula batzuk eman eta “etorri hemendik denbora batera”. Ez. Ez da asko kostatzen, beste zenbait kasutan egiten den bezala, telefono dei bat egitea eta “nola zaude?”, “zer sentitzen duzu?” galdetzea. Eta erregistratu.

Eta horrekin frogatu izan da, badaudelako beste zenbait lekutako esperientziak, portzentaia jaitsi egiten dela. Birsaiakera kopuruak jaitsi egiten dira interes horrekin soilik. Azken finean, bakardadea, isolamendua, galdera ikurrez betetako etorkizuna soilik ikustea... izan daitezke arrazoiak, eta egoera horretan, “begira,

badute interesa nirekin” pentsatzeak asko laguntzen du.

### **Zein izan daiteke komunikabideen funtzioa?**

Komunikabideek duintasunez eta dagokion seriotasunarekin tratatu behar dute gaia, morboetan sartu gabe. Zentzu horretan, zenbait programei ezetza eman diegu. Baina, oro har, gu hemen pozik gaude; gaia atera da eta normalizazio bidean dago. Eskertuta gaude, beste lekuetan ez dugu horrelako tratamendurik ikusi.

### **Segurtasun indarrak ere aipatu dituzu.**

Bai. Ertzaintza, udaltzaingoa... eta horiekin batera suhiltzaileak ere aipatu nituzke. Bartzelonan, adibidez, suizidioaren inguruko heziketa berezi bat jasotzen dute mossoek, udaltzailek eta suhiltzaileek. Kasu batzuetan oso erabakiorra izaten da suhiltzaileen papera eta lan garrantzitsua egin dezakete. Sua itzaltzera joaten direnean han dagoen pertsona zertan ari zen ikus dezakete, edota bere burua leihotik bota ez bota dagoenaren ondoan egon daitezke. Kasu horietan, suhiltzaileak esaten duena erabakiorra izan daiteke, bere buruaz beste egitea edo ez egitea erabaki dezake pertsona horrek. Eta horrelakoetan pautak batzuk ezagutzea edo zer esan jakitea oso garrantzitsua da.

### **Ikerkuntzak ere lagundu dezake prebentzioan?**

Bai, noski. Hemen Aidatuz elkarteak dago. Suizidiologia elkarteak da eta ikerkuntza lanak egiten ditu. Baita kongresuak antolatzen ere. Biziraunetik ere antolatzen ditugu kongresuak. Iaz EHUko udako ikastaro bat antolatu genuen, eta ia 110 lagun inguruk hartu zuten parte eta hori ikaragarria da. Erronka izan zen guretzat eta aurten ere berriro antolatzera goaz.

Horrez gain, nazioarteko bi egun ospatzen dira urtean zehar, eta horiekin ere sentsibilizazio prozesuan laguntzen dute. Bata irailaren 10ean ospatzen da, Suizidioaren Prebentzioaren Nazioarteko Eguna. Eta bestea azaroaren hirugarren larunbatean, Suizidio bidez hil direnen inguruan gelditu garenon Nazioarteko Eguna.

# EKARPENAK 1

ESKOLA-JANTOKIAK EAE-N

---

## Nolakoak dira eskola-jantokiak EAEn? Eta nolakoak izan litezke?

“Eskola-jantokiak EAEn. Nolakoak diren eta nolakoak izan litezkeen: elikaduraren kalitatea, hezkuntza-potentziala eta ingurunearekin duen lotura” izeneko ikerketa aurkeztu dute Eneko Viñuelasek (VSF Herrien Bidezko Elikadura), Lurdes Imazek (EHIGE) eta Irantzu Durok (LAIA Ekosormena).

Ikerketa 2015eko urtariletik 2017ko martxora bitartean egin du Laia Ekosormena elkarteak, hainbat fasetan, eta informazio-iturri hauek erabili ditu:

- **Behaketa:** jantoki eta sukaldeetara egindako bisitak.
- **Inkestak eta elkarrizketak:** eredu desberdinetako zortzi ikastetxeren azterketa (horietatik sei publikoak) eta 250 inkesta eta elkarrizketa guraso-elkarteei, zuzendaritzari,

jantoki-arduradunei, ikasleei, langileei, sukaldariei eta irakasleei.

- **Dokumentu ofizialak:** administrazioen datu publikoak erabili dira (Eustat, Eusko Jaurlaritzak, etab.) Horrez gain, hemengo zein nazioarteko ikerketak ere erabili dira, beste hiru iturriren bidez jasotako datuak kontrastatzeko edo zuzenean, enpirikoki edo dokumentazioaren bitartez lortu ezin izan ditugun datuen estimazio bat egin ahal izateko.

Laia Ekosormena elkarteak jakintzalor asko biltzen dituen lantaldea da, eta esperientzia zabala dauka elikadura-sistemarekin eta lehen sektorearekin lotutako ikerketetan.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ez du parte hartu nahi izan. Eskola publikoetako jantokiak kudeatzen dituen catering-enpresa bakar batek parte hartu du.

### Ikerketaren helburuak

Ikerketaren helburu nagusia EAeko ikastetxeetako elikadura-sistemen analisia eta diagnostikoa egitea izan da.

Ikastetxe barnean zein inguruarekin lotuta dauden erlazio, erabaki eta jarduera guztiak hartzen ditu barnean ikastetxeetako elikadura-sistemak. Eskola-jantokia da elikadura-siste-

maren zutabeetako bat, eta horregatik zentratu gara eskola-jantokian.

Lau atal ditu ikerketak:

- **Sistema ezaugarritzea:** sistema ondo definitzea, hau da, osatzen duten atal guztiak definitzea, baita berorien funtzioak eta ekintzak ere, hala nola erlazio horiek gidatzen dituzten arau eta erakundeak.
- **Inpaktua eta eragina:** sistemaren inpaktu lokala eta globala aztertzea, elikadura-sistemen ereduak konparatu ahal izateko.
- **EAEk dituen baliabideak ezagutzea (testuinguru lokalaren deskribapena):** baliabide horien arabera egingo dira hobekuntzarako proposamenak.
- **Eskola-komunitateen elikadura-sistema hobetzeko proposamen zehatzak:** EAEn baliabideak eta inpaktuen murrizketa kontuan hartuko dira horretarako.

\*GARRANTZITSUA: ikastetxe publikoetan zentratu da ikerketa. Ez dira lortu ikastetxe pribatuen datuak, eta ikastetxe publikoen datuak, berriz, publikoak dira.

### Zerbitzuari buruzko datu batzuk

- Ikastetxe publikoen % 98k catering-zerbitzua dauka (5 enpresa guztira).



- Ikasleen % 37k soilik dauka sukaldea ikastetxean.
- Zerbitzuaren kostu erreala ezagutzea oso zaila den arren, kalkulatzen dugu familiek kostuaren 2/3 ordaintzen dutela (gainerakoa Eusko Jaurlaritzak ordaintzen du).
- Oso araudi zurruna dute, eta ez da egokitzen eskola-komunitateen egungo beharretara (ikastetxeek ezin dute eredia ez eta enpresa aukeratu; ez da egokitzen familien behar jakinetara, etab).
- Asko hobetu daiteke kalitatea, nutrizioaren ikuspegitik:
  - Ikerketek fruta, barazki, arrautza eta arrain urdin gehiago jatea gomendatzen dute.
  - Haragia, purea, produktu frijituak eta esnekien postreak murriztea gomendatzen da.
  - Azukredun postreak ekidin behar dira.
- Familiek elikagaien jatorria ezagutu nahi dute.
- Ez dago jantokiaren aprobe-txamendu pedagogikorik: ez da kontuan hartzen ikastetxeko hezkuntza-proiektuan; ikasleek gutxi parte hartzen dute; langi-

leen prestakuntza hobetu behar da eta abar.

- Catering-enpresen hermetis-moa. Produktu industrializatuak eta kilometrikoak erabiltzen dituzte. % 10ek baino ez diote erosten lehen sektoreari (estimazioa).

#### **Sistema ekologiko eta gertukoaren abantailak eredu industrialarekin alderatuta**

- Elikadura-sistema industrialak tokiko ekoizpenean eta ekoizpen ekologikoan oinarritutako sistema batek baino bost bider energia gehiago kontsumitzen du.
- Elikadura-sistema industrialean, elikaduraren kalitatea ez da lehentasunezko faktorea. Oro har, tokiko elikagaiek potentzial handiagoa daukate mantengaiaren puntu optimoari eusteko.
- Nekazaritza-ekoizpen ekologikoa indartu behar da, eta merkaturatze-zirkuitu laburretan egin behar da salmenta. Horrek guztiak enplegua sortzen du; nekazaritzako eta landaguneetako inguruak dinamizatzen ditu; tokiko merkatuak sustatzen

Ikerketek fruta, barazki, arrautza eta arrain urdin gehiago jatea gomendatzen dute; haragia, purea, produktu frijituak eta esnekien postreak murriztea; eta azukredun postreak ekiditea.

Ez dago jantokiaren aprobe-txamendu pedagogikorik: ez da kontuan hartzen ikastetxeko hezkuntza-proiektuan.

## EKARPENAK 1: ESKOLA-JANTOKIAK EAE-N

Garrantzitsua da nekazaritzaren ikuspegitik balio handia duen lurra, ura eta baserriarren nekazaritza eta arrantza iraunkorrerako ezinbestekoak diren ondasunak babestea.



ditu, eta mesede egiten dio balio erantsiaren banaketari.

- Tokian tokiko elikadura-sistema ezarri duten lekuetan, ikasleak jaten dutenaz jabetzen dira, bai eta jaten dutenak osasunarekin, ingurua zaintzarekin, sukaldaritzatradizioarekin eta abarrek duen loturaz ere.
- Elikadura-sistema industrialeko elikagaien nazioarteko merkatuak ez die mesederik egiten herrialdeko ekoizleei dagozkien landa-gizarteei, eta ez du balio txirotutako eskualdeentzat, biztanleak pobrezia-egoeratik ateratzeko.

### Ba al dauka EAEk behar beste baliabide gertuko elikadura-sistema bateko eskariari erantzuteko?

Ekoizpen-sistemaren azterketak adierazten du badagoela aukera eskola-jantokiak hemengo elikagaiekin hornitzeko, elikagai ekologikoekin hornitzea ezinezkoa bada ere.

Arrautza ekologikoen kasuan izan ezik, gainerako elikagaien kasuan, oso urruti gaude egungo ekoizpenarekin EAEko ikastetxe publiko guztiei hurbileko menu ekologikoak eskaintzetik. Lehenetsuna izango du, horrenbestez, ekoizpen ekologikoa indartzeak.

Era berean, garrantzitsua da nekazaritzaren ikuspegitik balio handia duen lurra, ura eta baserriarren nekazari-

tzarako eta arrantza iraunkorrerako ezinbestekoak diren ondasunak babestea; era berean, garrantzitsua da gazteak ekoizpen-jarduera horietara bideratzeko erraztasunak ematea.

Horrez gain, uste dugu hemengo merkatuak eta merkaturatze-zirkuitu laburrak indartzea ere garrantzitsua dela, eta azpiegitura egokiak antolatu behar lirerateke hemengo banaketa eta merkaturatzea sustatzeko.

### Erosketa publikoak egoera aldatzeko duen indarra

Administrazioak, erosketa publikoaren bidez, eginkizun garrantzitsua izan dezake gertuko nekazaritza-sistema ekologikorako trantsizioa sustatzeko. Eskola-jantokietatik harago doa sukaldaritzako kolektibo publikoa (ospitaleak, zaharren egoitzak, lantokiak, eguneko zentroak, etxeko laguntzako zerbitzuak, administrazioen jantokiak). EAE-n, 2.543 jantoki kolektibo daude, eta 120.000 bazkaltiar inguru. 20 milioi ingurukoa izan daiteke eskola-jantoki publikoei dagokien erosketa publikoa.

Europar indarrean den lege-esparruak elikagai ekologikoen eta jatorri-bereizgarriak dituzten elikagaien erosketa publikoa baimentzen du. Halaber, posible da kontratazioetarako baldintza-orriak idaztean tokiko ekoizleen partaidetza sustatzen duten irizpide objektiboak txertatzea, tokiko eta kalitatezko produktu ekologikoen

balioespen hobea izan dezaten.

### Elikadura-sistemak hobetzeko 10 printzipio

1. **Elikagai nutritiboak:** menuek modu egokian bete behar dituzte ikasleen elikadura-beharrak, sasoiko produktu freskoekin dieta aberatsa eta askotarikoa eskainiz.
2. **Elikagai osasuntsuak:** platerak ikastetxeetan prestatu behar dira, sukaldaritzako teknika osasungarriak erabiliz. Gainera, ez dute pestizidarik edo bestelako substantzia toxikorik izan behar.
3. **Agroekologia:** irizpide sozialak, kulturalak eta ingurumen-irizpideak errespetatzen dituzten ekoizpen-sistemetatik etorri behar dute elikagaiak. Horregatik egiten dugu agroekologiaren aldeko apustua, barnean hartzen dituelako ekoizpen ekologikoa, justizia soziala, errentagarritasun ekonomikoa, osasuna, kultura eta ingurumena zaintzeko irizpideak eta ekoizpen eta baldintza sozial duinak.
4. **Gertutasuna:** gertuko elikagaiak lehenetsi behar dira, lekuko ekoizpena eta merkaturatze-zirkuitu laburrak sustatzeko. Horrela, tokiko ekonomia sustatuko da, bai eta baserriarren eta eskola-komunitateen arteko lotura ere.



5. **Informazio irisgarria:** umeentzako nahi dugun eskola-elikaduraren ereduari buruz erabaki ahal izateko, ezinbestekoa da informazio zabala, erreal eta egiaztatua izatea.
6. **Sentsibilizazioa eta prestakuntza:** eskola-komunitateetan parte hartzen duten pertsonen beharrezkoak diren tresnak eta ezagutzak eskainiko zaizkie, informazioa modu kritikoa erabili ahal izan dezaten.
7. **Parte-hartzea eta erabakimena:** informazioa eta prestakuntza izanda, espazioak behar dira elkarriketan aritzeko, erabakiak hartzeko eta tokiko elikadura-sistema iraunkorak eraikitzen joateko.
8. **Eragileen arteko komunikazioa:** gardentasuna sustatuko da, eta komunikaziorako espazioak sortuko dira, eskola-komunitateetako elikadura-sistemetan parte hartzen duten eragile guztiekin (publikoak, pribatuak eta sozialak).
9. **Ekintza pedagogikoa:** eskolako elikadura-sistemak eta ikaste-txeetako hezkuntza-proiektuetan inplikaturik dauden pertsonak integratuko dira, eta eskola-jantokiek eta, oro har, elikadura-sistemek duten botere pedagogiko ikaragarria gararaziko duten tresnak eta baliabideak emango

dira.

10. **Justizia:** eskolako elikadura-sistemak eragin lokala eta globala ditu. Horregatik, inplikaturik eragile guztien arteko erlazioen ardura partekatua zaindu behar da, baita elkarren ezagutza, elkartzasuna, errespetua eta ekitatea ere, Iparraren eta Hegoaren arteko erlazioak ahaztu gabe.

#### Proposamena

Printzipio horietan oinarrituta, proposamen hauek egiten ditugu:

- Eusko Jaurlaritzaren konpromiso politiko loteslea, eskoletako elikadura-sistemak hezkuntza-proiektuan txerta daitezten, menuak, jangelak, sukaldea eta langileak hezkuntza-espazioan bateratuz.
- Eusko Jaurlaritzaren, foru-erakundearen eta tokiko administrazioen konpromiso politiko loteslea, eskola-komunitateetako elikadura-sistemetan gertukoek eta baserriarrek ekoiztakoaren erosketa publikoa txertatzeko borondatea esplizitu egiteko.
- Elikadura-gobernantzarako egiturak sortzea –elikadura-kontseiluak, esaterako–, inplikaturik eragileen parte-hartzearekin: erakundeak, ekoizleen elkarteak, umeak, guraso-elkarteak, irakasleak eta sukalde eta jangeletan lan egiten duten pertsonak.

Irizpide sozialak, kulturalak eta ingurumen-irizpideak errespetatzen dituzten ekoizpen-sistemetatik etorri behar dute elikagaiek. Horregatik egiten dugu agroekologiaren aldeko apustua, barnean hartzen dituelako ekoizpen ekologikoa, justizia soziala, errentagarritasun ekonomikoa, osasuna, kultura eta ingurumena zaintzeko irizpideak eta ekoizpen eta baldintza sozial duinak.

# EKARPENAK 2

KATALUNIAKO HEZKUNTZA LEGEA

## Autonomia eta lankidetzaren eraldaketaren giltza

2009an onarturiko Kataluniako Hezkuntza Legea izan dute hizpide Eusko Jaurlaritzak antolaturiko jardunaldietan udazkenean. Hiru ardatz nagusi ditu legeak: ikastetxeei hezkuntza-proiektu propioa garatzeko autonomia areagotzea; lantaldeen eta zuzendaritzen aukeraketan irizpide berriak proposatzea, eta ikastetxeak lankidetzan aritzeko sareak sortzea.

**A**ldaketa eta mugimendu sakoneko garaiak ari dira bizitzen Katalunian, eta hezkuntza ere ez da gelditu zurrumbilo horretatik kanpo. Izan ere, bai gizarte-mugimenduak bai administrazioa bera lanean ari dira hezkuntza-sisteman egiturazko aldaketa bat eragiteko. Uholde hori izan zuten hizpide azaroan, Eusko Jaurlaritzak antolaturiko “Hezkuntza aldatzea mundu aldakor baterako” jardunaldien barruan antolaturiko

mahai-inguruan Eduard Valoryk eta Ignasi Garciak, aldaketa horretarako lanean ari diren eragileetako bik.

Besteak beste, analista soziala da Valory, hezkuntza hobetzeko aldaketaren kudeaketan aditua, eta Kataluniako Unesco zentroaren lehendakaria. Egungo hezkuntza-sistemaren deskribapen gordina egin zuen: “Estatuko administrazioaren luzapen gisa ulertzen dugu gaur egun hezkuntza publikoa; hezkuntza-proiektu propioak gabe, autonomiarik gabe”. Egungo eskola-ereduak XIX. mendean du jatorria, “jakintza guztia entziklopedian sintetizatzeaz harro agertzen zen Ilustrazio eta Ilustrazio osteko garaian“. Eredu horren arabera, entziklopedian bildutako jakintza horietatik oinarritzeko kultura bat izateko beharrezkoak diren edukiak transmititzea da eskolaren funtzioa. Eta, noski, Ilustrazioak defendaturiko estatu ahalguztiduna arduratuko da entziklopedian jasotako jakintza guztiaren artetik beharrezkoak zein diren aukeratzeaz, eta horiek noiz eta nola, zer adinetan eta zer modutan transmitituko diren erabakitzeaz. “Logika selektibo akademizista horrek hezkuntza-eredu jakin bat sorrarazi zuen: eskolak transmisiorako kanal ona izan behar du, eta, irakasleek, aplikatzaile onak. Zertarako beharko ditu eskolak proiektu propioa eta autonomia, estatuak aukeratzen eta erabakitzen badu guztia?”, dio Valoryk; “XIX. mendeko ikuskera batekin bizi gara egun”.

Duela bi mende sorturiko eredu hura da, gaur egun, normalizat hartzen dena; eredu horrek balio du eskolak zer izan behar duen ulertzeko. “Ikasle nintzenean, filosofiako irakasle batek honela esaten zigun: ‘melo bat jaten duzunean, eta ona ez dagoela diozunean, edo ez dagoela nahiko gozoa... zertan oinarrituta egiten duzu erreferentzia hori? Bada, meloiak izan behar duen horren ideian oinarrituta, meloiaren erreferentzia ideal batean’. Erreferentzia ideala da normala dena eta normala ez dena bereizteko erabiltzen duguna. Eta hezkuntza-sistema aztertzerakoan, abiapuntua zera da: eskola normalaz dugun ideia zaharkitutako normaltasuna da. Bada, normaltasuna zer den berriz pentsatu behar dugu, abiapuntu gisa. Edo, bestela, gure hezkuntza-sistema erabat zaharkituta egongo da gaur egungo haurrentzat”.

Beraz, duela bi mendeko testuinguruaren neurrira eginiko jantzi bat da egun normalizat hartzen dugun eskola-eredua. Baina, bi mende geroagoa, jantzi horrek ez du balio, testuinguru goitik behera irauli ondoren. Testuinguru aldaketaz aritzean, batetik, migrazioa eta horren ondorio diren gizarte multikulturalen sorrera izan zituen hizpide Valoryk. Eta, horrekin batera, baita teknologia-iraultzaren eskutik etorririko aldaketen multzoa ere: komunikatzeko bide eta moduetan izandako aldaketak, teknologiak lan-munduan eraginiko aldaketak... Izan ere, Oxford Uni-





bertsitateak 2013an eginiko ikerketa baten arabera, AEBko lanpostuen % 50 automatizatzeko aukera sortuko da datozen bi hamarraldietan, eta, Munduko Ekonomia Foroaren arabera, Haur Hezkuntzan dabilten ikasleen % 60k gaur egun ezagutzen ez ditugun lanpostuak izango ditu etorkizunean, Valoryk gogorarazitakoaren ildotik. Testuinguru berri horretan, “edo hezkuntza eraldatzen dugu, edo arriskuan jarriko da haurren bizitzari pertsona, profesionala eta herritarra den neurrian balio erantsia emateko eskolak duen gaitasuna”.

#### **Legea: aldaketarako baldintzak sortzen**

Bada, Katalunian heldu egin diote hezkuntza-sistema eraldatzeko desafioari, egungo testuinguru eta desfioetara egokitzeko eta egungo haurrei benetako balio erantsia eskaintzeko gai izan dadin. 2009an onartu zuten, adostasun politiko zabalarekin, Kataluniako Hezkuntza Legea edo LEC delakoa. Lege horren funtsetako bat da hezkuntza-komunitatearen ideia; horren arabera, eskolak bere inguru hurbilera, bere errealitatera, egokitu behar du, eta zubiak eraiki behar ditu. Familien eta

eskolaren arteko harremana sendotzea da xedea, eta haiei eskolan parte hartzeko ateak irekitzea, guztien artean haurrentzako hezkuntza-ingurune egokia sortzeko. Beraz, eskolak bere ingurunera egokituriko hezkuntza-proiektu propioa sortu behar du. Gauzak horrela, bakoitzak bere bidea egiteko gaitasuna izan dezan, legeak aitortu egiten du eskolek autonomia behar dutela giza baliabideak, curriculum edo aurrekontua kudeatzeko.

Lege berriarekin etorririko pentsamendu- eta praktika-aldaketak xehe-tasunez azaldu zituen Ignasi Garciak, Kataluniako Gobernuko Hezkuntza Departamentuan irakasleen eta zentro publikoetako langileen zuzendari orokorra denak. Valoryk egin bezala, hark ere indarrean dagoen XIX. mendeko eskola-ereduaren baliogabetasuna jarri zuen mahai gainean, hezkuntzaren egiturazko aldaketa defendatzeko. “Sistemak honela funtzionatu izan du: administrazioak daki nola eta noiz, eta, beraz, administrazioak arautzen du nola eta noiz. Ondoren, administrazioak erabakirik hori ur-jauzi bat bezala jaisten da eskoletara: administrazioak erabaki duena aplikatu behar dute horiek, eta, horrela, arrakasta izango dute. Baina erabat faltsua da ideia hori, ez

“Edo hezkuntza eraldatzen dugu, edo haurren bizitzari, pertsona bezala, profesional bezala, hiritar bezala balio erantsia emateko eskolak duen gaitasuna arriskuan egongo da”

“Ikusi genuen hobekuntza-esperientzia asko oso puntualak zirela, inguruko baldintzek ia ezinezkoa egiten zutelako hobekuntza egonkor eta iraunkorra”

## EKARPENAK 2: KATALUNIako HEZKUNTZA LEGEA



du funtzionatzen”. Hezkuntza-eredu horretan, ikastetxeari martxan eustera eta aurreikusita dagoena betetzen dela bermatzera mugatzen da eskolazuzendarien lana, Garciak salatu duenez. Horren adibide, Hezkuntza Departamenturako ikuskatzaile-lanetan ibili zeneko pasadizo bat azaldu zuen: “Ikuskatzaileen buru gisa eskolazuzendari bati elkarrizketa egitea egokitu zitzaidan, eta, haren ikastetxean ikasleetatik zer zenbatekok gainditzen zuen DBH galdetzean, ez zekiela eta gai hori ikasketa-buruak eramaten zuela erantzun zidan. Oso sintoma argia izan zen hori: zuzendari horrek, eguneko martxa bermatzeko zereginean murgildurik, ez zekien, hain zuzen, hori jakitea dela zuzendari baten oinarritzko misioetako bat. Eskola bateko liderrak argi izan behar dituen datuen artean, garrantzitsuena datu horixe da”.

Gauzak horrela, 2009ko Hezkuntza Legearen aurretik ere, sistemaren gaitz horiek sendatzeko lanari ekin zioten, eta horrela sortu ziren, 2004-2005. urteetan, Ikastetxeen Autonomiarako Plan Estrategikoak. Administrazioaren eta ikastetxeen artean itunduriko erantzukidetasunakordioak ziren, eta emaitza akademikoak eta kalitatea hobetzea zuten xede, alde batetik, zentroen autonomia areagotuz, eta, bestetik,

administrazioak zentroeiei emaniko babesa indartuz. Esperientzia horretatik, hainbat ondorio atera zituzten, ondorengo legearen ernamuina izango zirenak. Alde batetik, ikusi zuten zentreek ilusioz hartu zutelaren proposamena, eta masiboki hartu zutelaren plangintza horiek garatzeko konpromisoa, nahiz eta ahalegin handia eskatu. Bestetik, ohartu ziren zentreek gehien baloratzen zutena ez zela babes ekonomikoa edo materialen aldetik jasotako laguntza, autonomia baizik. Autonomia, beren kasa antolatu ahal izateko, lantaldeen osaketan esku hartzeko, eta, horrela, hezkuntza-proiektu propioa garatzeko egonkortasuna lortzeko.

Alegia, Hezkuntza Departamentuan, argi ikusi zuten hezkuntza-sistema berritzeko berrikuntza horrek autonomia izan behar zuela ardatz. “Ikusi genuen hobekuntza-esperientzia asko oso puntualak zirela, inguruko baldintzek, leku-aldaketarako lehiaketek, esaterako, ia ezinezko egiten zutelako ikastetxeek hobekuntzarako dinamika egonkor eta iraunkor bati eustea. Beraz, frustrazioa eragiten duen ahalegin baliogabea da hobekuntzaren inguruko diskurtsoa egitea, egiturazko arazoak aldatu gabe. Horrenbestez, gure indarrak hobekuntzarako baldintzak sortzen jarri behar ditugu.”

Dena dela, baldintza egokiak sor-

tzeko prozesu hori “mugen barruan” egin behar izan dute, “estatu-mailako lege organiko, errege-dekretu eta abarrek ezartzen dituzten mugen barruan; haiek baldintzatu egiten dituzte hezkuntza-politikak osotasunean martxan jartzeko aukerak”. Hala ere, administrazio gisa zer mekanismo abian jar daitezkeen aztertzeari eta, lehenengo eta behin, hezkuntza-helburu nagusiak eta ikastetxeek jarraitu beharreko gidalerroak eta xedek definitzeari ekin zioten. Horrekin batera, ikastetxeek hobekuntzarako lan egin zezaten administrazioak eman beharreko laguntza zehaztu zuten, eta ikastetxeen arteko sarea sortu. “Izan ere, badakigu kalitatea bermatzeko ezinbesteko baldintzak zein diren: batetik, helburuak garbi izatea; bestetik, prestakuntza egokia duen lantaldea izatea, hobetzeko lanean ari dena; eta, gainera, ikastetxeak elkarlanean jardutea, ezinezkoa baita ikastetxe bakoitzak hobekuntzarako beharrezko elementu guztiak izatea. Beraz, elkarlana da oinarria, eta ez norgehiagoka. Kontzeptu-aldaketa hori gakoa da kalitatea eta arrakasta lortzeko”.

### **Autonomia, lege berriari bihotza**

Autonomia da Kataluniako Hezkuntza Legearen muina, ikastetxe bakoitzak kudeaketarako izango duen

askatasuna. Hezkuntza-proiektua da, berriz, ikastetxeen autonomiaren ardatza. Garciak onartzen du lege berriaren aurretik hezkuntza-proiektua “azalekoa, ia elementu apaingarria” zela; baina, legeak ikastetxe bakoitzaren autonomia onartu eta horiei antolatzeke eta lantalde egonkorak sortzeko gaitasuna aitortzen dien unetik, “hezkuntza-proiektuak beste zentzu bat hartzen du; ikastetxearen erabakiak antolatzen ditu, gorpuztu egiten ditu, eta zentro horrek hartu beharreko norabidea definitzen du”.

Hiru oinarri ditu ikastetxeen autonomiak. Batetik, ikastetxeei curriculum orokorra nola aplikatu erabakitzeke gaitasuna aitortzen die legeak, esate baterako, nola antolatu edukiak eta ikasgaiak, orduen banaketa, kompetentziak... “Beraz, ez du zentzurik Hezkuntza Departamentuko ikuskatzaileek matematikari edo ingelesari zenbat ordu eskaintzen zaizkion kontrolatzea; izan ere, ikastetxeek curriculum aplikatzeko malgutasuna duten unetik, ez dute zertan ikasgai jakinetan antolatu ere”.

Bigarrenik, antolakuntzarako autonomia aitortu zaie ikastetxeei, partzialki bada ere. Kataluniako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak zuzendaria, ikasketa-burua eta idazkaria izatera behartzen ditu ikastetxeak, eta, Espainiako Hezkuntza Lege Organikoak hala aginduta, baita departamentu didaktikoak izatera ere, institutuen kasuan. Gutxieneko egitura bat izatera behartu arren, ikastetxeek beren hezkuntza-proiektuaren arabera antolatzeke malgutasuna izatea da Hezkuntza Departamentuaren xedea. Hala, atea irekitzen zaie ikasgai jakinetan oinarrituta egitura bertikaletik aldentzen diren bestelako aukerei ere: “Ikastetxe batek edukiak diziplinartekotasunez antolatzen baditu, bada, planteamendu pedagogiko horretarako egokiagoa izango da, segur aski, antolakuntza horizontala”. Hirugarrenik, autonomia aitortzen zaie ikastetxeei lantaldea eta, beraz, irakasleak kudeatzeko.

### Antzinasunaz harago

Autonomiaz gain, Kataluniako Hezkuntza Legeak bereizgarri ditu bai zuzendaritza eta bai ikastetxee-

tako lantaldeak osatzerakoan proposatzen dituen aldaketak; aurreko sistemarekiko haustura sakona proposatzen dute. Izan ere, ordu arte antzinasun handiena zuten irakasleek lehentasuna zuten zuzendari postuak esleitzerakoan, edo ikastetxe jakin baterako leku-aldaketa eskatzerakoan. Baina, Garciaren ustez, “antzinasuna ez da balio erantsi bat per se”. Hori horrela izanik, lege berriarekin, ikastetxeetako zuzendariak aukeratzeko antzinasunak ematen zituen puntuak mugatzea erabaki zuten; gehienez ere 2 puntu lor daitezke egun antzinasunaren bidez, eta 0,25 puntu urteko. Beraz, 8 urte edo 20 urte lan egin dituen irakasleak puntu-kopuru bera izango du antzinasunaren atalean zuzendaritza-postu batera aurkezterakoan.

Antzinasunari eman beharrean, legeak beste elementu batzuei ematen die garrantzia ikastetxeko zuzendaria aukeratzekoan, “esanguratsua goak direlako”. Batetik, zuzendaritzarekin lotutako prestakuntza izateari. Bestetik, pertsona horrek irakasle gisa egindako lanaren ebaluazioari. Ikuskatzaile bat arduratzen da ebaluazio horretaz, pertsona horren lanari behatuz edo zuzeneko elkarriketen bidez, besteak beste. Dena dela, beharrikoa ez da soilik ea pertsona hori irakasle “ona” den; “hori ere bai, noski, kalitatezko praktika ezinbestekoa baita lidergo pedagogikoa garatzeko”. Baina, horrez gain, pertsona horrek ikastetxearen praktika pedagogikoaz egiten duen hausnarketa baloratuko du ikuskatzaileak; ikastetxearen praktikaren indargunez eta hobetu beharreko puntuez gogoeta egiteko duen gaitasuna, alegia. “Garrantzitsua da hausnarketarako ahalmen hori izatea, zuzendari izango bada”. Hirugarrenik, lidergo pedagogikoa baloratzen da, “hezkuntza-proiektua aplikatzean hezkuntza-komunitateak eta, bereziki, gainerako irakasleek izan behar duten parte-hartzea nola definitzen duen, hori gakoak baita guretzat”.

Bestalde, lantaldearen kudeaketari dagokionez, oso kritiko azaldu zen Garcia leku-aldaketarako lehiaketekin. “Kalitatea helburu duen hezkuntza-sistema batek ezin du

**“Badakigu kalitatea bermatzeko zein diren ezinbesteko baldintzak: batetik, helburuak garbi izatea; bestetik, formazio egokia duen lantaldea izatea, hobetzeko lanean ari dena; eta, gainera, ikastetxeak elkarlanean jardutea.”**

leku-aldaketetarako lehiaketen mende egon. Horrek edozein murrizketak baino zailtasun gehiago eragiten ditu. Beraz, ezinbestekoa zen sakoneko aldaketa horiek egitea, nahiz eta gatazkak sortu, sistema berritzeko egiten den ia edozein apustutan bezala”.

### Lankidetzaren sareak sortzen

Kataluniako Hezkuntza Legearen hirugarren gako nagusia, autonomiarekin eta lantaldeen kudeaketarekin batera, ikastetxeen artean lankidetzaren sustatzeko sortu dituzten sareak dira. Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan sareak sortzea sustatzen ari dira Hezkuntza Departamentuan, besteak beste, kompetentziak elkarrekin landu ditzaten. Baina, horrez gain, atxikipen-eremuen inguruko gogoetari heldu diote. “Itunpeko eskolak ziurtatu dezake HHren eta LHren artean koherentzia pedagogikoa egotea, baina hezkuntza publikoaren arazoetako bat da ezin duela koherentzia edo jarraitasun hori bermatu; askotan, irakasleak LHko zentro batetik DBHko beste zentro batera joaten dira, eta haustura sakona dago koherentzia pedagogiko horretan.” Horregatik, jarraitasun pedagogikoa eta ikasleen hezkuntza-prozesuan koherentzia izatea bermatzeko, ikastetxeak, LHkoak eta DBHkoak, sarean lankidetzan aritzea baliagarria izan daitekeelakoan daude.

# GALDEIDAZU

## ZERGATIK DA JUSTUAGOA 'ZERRENDA BAKARRA' NAFARROAKO HEZKUNTZAKO DEIALDI PUBLIKOAN?

Zerrenda bakarra LAB sindikatuaren aldarrikapena izan da aspaldidanik. Zergatik? Gaur egun, euskarazko eta gaztelaniazko zerrendak ditugunez eta oposizioak daudenean bi hizkuntzetako frogak egun eta ordu berean egiten direnez, elebidunak behartuta egon ohi dira azterketa hizkuntza batean edo bestean —euskaraz edo gaztelaniaz— egitera. Beraz, bi zerrendetako batean egoteko aukerari uko egin behar izaten diote, nahiz eta zerrenda horretan egoteko behar diren ezaugarri guztiak bete.

90eko hamarraldi erdira arte zerrenda bakarra zegoen. Ez gintuzten irakasleok bereizten profil linguistikoaren arabera. Euskaraz irakasteko gaitasuna zuenari euskaraz irakasteko deitzen zioten eta gaztelaniaz irakasteko gaitasuna zuenari gaztelaniaz irakasteko. Guretzat justuena hori da, alegia, pertsona batek euskaraz eta gaztelaniaz irakasteko gaitasuna baldin badauka, bietan eskolak emateko aukera izatea. Eta horixe da honen guztiaren funts nagusia eta orain aldarrikatzen ari garena.

Zerrenda bikoitza “UPNren erregimena” deitzen diogunaren urte horietan abian jarri den praktika bat izan da. LAB aspaldian dabil nafar administrazioan ematen den irregu-



MIKEL LIZASO

### LAB irakaskuntzako kidea Nafarroan



lartasun hori salatzen, alde batetik, elebidunak diren maisu-maistra eta irakasleen aurkako diskriminazio garbia adierazten duelako eta, bestaldetik, horren aurrean badagoelako soluziorik: zerrenda bakar eta bateratu baten sorrera.

Orain dela zortzi urte inguru hasi ginen zerrenda bakarraren gaia lantzen eta aldarrikapen hau egiten. Eta pixka bat baita ere kontzientziazio lana egiten. Izan ere, gai hau inolako masa kritikorik gabe zegoen, agenda sozio-politikotik erabat baztertua, eta LABeko delegatu batzuk hasi ziren kontu hau mugitzen eta aldarrikapenak egiten.

Nafarroako Gobernu aldaketaren ondotik, joan den irailan, Maria Solana buru duen Hezkuntza Departamentuak Mahai Sektorialean jakinarazi zuen zerrenda bakarra osatzeko erabakia hartuta zegoela, baina hainbat gertakari politiko tarteko, oraingoan ere ezinezkoa izan da. Gezurra badirudi ere, XXI. mendean badago gaitasun handiagoa izanda ere aukera gutxiago izatea ahalbidetzen duen egoera eskizofrenikoa babesten duten alderdi politiko, sindikatu eta hedabiderik eta ahalegin guztiak egin dituzte orain arte pairatu dugun irregulartasun administratibo erraldoi horri eusteko.

Alderdi, sindikatu eta hedabide ho-

riek euskararen eta nazionalismoaren mamua pizten dute zerrenda bakararren aukera aipatzen den bakoitzean, paradoxikoki behin eta berriro ukatua izan den berdintasunaren izenean. Euskararen mamua piztu nahi izan dute, beren interes partikularren aurka doan eskubidea delako, eta gizartearen parte batek horiei ematen dien sostenguaren jatorria ere, hein handi batean, hortik dator. Alegia, gaztelaniaz soilik dakiten maisu-maistrak euren babesgune pribilegiatuan daude. Izan ere, irakasle euskaldunek halabeharrez hizkuntza baten edo bestearen inguruko hautua egin behar dutenez, soilik euskarazko zerrendetan parte hartzea aukeratu ohi dute, gaztelaniazko lanpostuen aukera, bere osotasunean, elebakarrak diren maisu-maistra eta irakasleen eskuetan utziaz. Hori pribilegioa da eta aipatu eragile guztiak ez daude prest pribilegio horri uko egiteko, ezta atzean dituen onura sozioekonomiko eta politikoak bazter batera uzteko ere. Horren atzean helburu politiko jakin bat dagoela uste dugu guk: “Kontuz! Euskaldunak datoz-eta” mantra aplikatzea irakasle-riaren barruan ere. Hala, gaztelaniaz soilik dakitenei igortzen dieten mezua zera da: “Zuek, lasai, izango duzue eta zuen koto pribatua, eta euskaraz eta gaztelaniaz dakitenek hautatu egin beharko dute edo koto pribatu horretan sartu, edo euskarazkoan soilik sartu”.

Horren guztiaren atzean sekulako diskriminazioa dago, eta gaur egun, estatu espainiarreko beste inongo administrazioetan ez da horrelakorik gertatzen, nahiz eta bi hizkuntza hitz egin. Esate baterako, Galizian, Valentzian, Balear Irletan, Katalunian eta Euskal Autonomia Erkidegoan, afera hau erabat gainditua dago, bi hizkuntzen ezagutza nahitaezkoa delako irakaskuntzan aritzeko. Nafarroan zergatik sortzen dira honen aurkako ahots, inertzia eta iritziak? Zerrenda bakarren aukerak, gainera, ez du suposatzen aipatu erkidego horien estatusera iristea, ez baitu inor behartuko euskara ikastera. Baina euskaldunok beste hizkuntza bat jakinda ere aukera gutxiago izatera kondenatuta egotea erabat injustua da. Guk onartzen dugu errealitate soziolinguistiko jakin baten baitan gaudela eta momentuz ez dela

errealista funtzio publikoan lan egiteko bi hizkuntzak eskatzea — nahiz eta gure fineko helburua hori izan —, baina bai gutxienez exijitzea pertsona batek bi hizkuntzetan eskolak emateko profila badu, aukera hori ahalbidetzea.

Afera honekin, gainera, hezkuntza kalitateaz ere ari gara hitz egiten. Izan ere, irakasle batzuei arlo batzuk ematea eta ikasle batzuekin aritzea oztopatuz gero, kontua ez da soilik irakasle horien eskubide bat urratzen dela — gaitasuna duen hizkuntza batean eskolak ematekoa —, baizik eta ikasle eta familia horiei irakasle horren kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea ere kentzen zaie, alegia, irakasle horien jardun profesionala eta zerbitzua jaso ahal izatekoa.

Azken urteetan gure lana izan da zerrenda bakarren aldeko aldarria egitea, bereziki kontzientziazio lana, lehen masa kritikorik ere ez baitzegoen injustizia hori salatuko zuenik. Horrez gain, ikusten genuen politikoki ere blokeo handia zegoela. UPNrekin ezinezkoa zen ezer egitea arlo horretan. Eurek gehiengoa zuten, eta PSNren sostengua, zerrendaren gaia blindatuta zuten. Baina kontzientziazio lanak aurrera egin ahala, eta gobernu aldatetarekin, azken hilabeteetan gaia atzera ere mahai gainean jarri da. Administrazioak berak onartu du badaudela baldintzak zerrenda bakarrik jartzeko eta aukerarik zuzenena hori dela. Xedea zen zerrenda bakar hori lehen aldiz udaberrian egingo diren Bigarren Hezkuntzako oposizioetan aplikatzea.

Hortaz, Maria Solana Hezkuntza Kontseilariak zerrenda bakarra egiteko aukera iragarri zuenean, gure aldarrikapena aurrera zihoala sentitu genuen. Ez genuena espero zen, tartean, PSN zerrenda bakarren aurkako ekimen legegile batekin irtengo zenik, eta are gutxiago Izquierda-Ezkerrak (IE) sostengua emango zionik. Lauko Gobernu Geroa Bai-k, EH Bildu-k, Podemos-ek eta IEk osatzen dute eta soilik bi botorengatik irabazten diote beste blokeari. Hortaz, IEko bi diputatuek beste aldera egiten badute, jada gehiengoa beste blokeak du. Eta horixe da kasu honetan gertatu dena: legez jasota geratu dela zerrenda bakarrik ez duela aurrera egingo. Hezkun-

**Gaztelaniaz soilik dakiten maisu-maistrak euren babesgune pribilegiatuan daude. Izan ere, irakasle euskaldunek halabeharrez hizkuntza baten edo bestearen inguruko hautua egin behar dutenez, soilik euskarazko zerrendetan parte hartzea aukeratu ohi dute, gaztelaniazko lanpostuen aukera, bere osotasunean, elebakarrak diren maisu-maistra eta irakasleen eskuetan utziaz. Hori pribilegioa da, eta denak ez daude prest pribilegio horri uko egiteko, ezta atzean dituen onura sozioekonomiko eta politikoak bazter batera uzteko ere.**

tza Kontseilariaren oniritzia izateaz gainera, sindikatuen gehiengoak ere bat egiten zuen zerrenda bakarren egitasmoarekin bai mahai orokorrean (Administrazio osoa hartzen duen mahaian), eta baita mahai sektorialean ere (Hezkuntzako mahaian). LAB, ELA eta Steilas bat etorri ziren zerrenda bakarren proposamenarekin, xehetasunak xehetasun; eta CCOOK eta UGTk ere ez zuten kontra bozkatu. Alegia, denek ikusten zuten bidezko aldarrikapena zela.

PSNren ekimen legegile horri, IEren babesari esker aurrera atera denari, guk *segregazio legea* deitzen diogu. Izan ere, modu horretan lege bidez ez zegoen zerbait lege bidez jarri dute. Zertarako? Zerrenda bakarra oztopatzeko. Alegia, legez banaketa hori bermatuta geratuko da. Horregatik deitzen diogu *segregazio legea*, bereizi egiten duelako: gaztelaniaz bakarrik

PSNren ekimen legegile horri, Izquierda-Ezkerraren babesari esker aurrera atera denari, guk 'segregazio legea' deitzen diogu. Izan ere, modu horretan lege bidez ez zegoen zerbait lege bidez jarri dute. Zertarako? Zerrenda bakarra oztopatzeko. Alegia, legez banaketa hori bermatuta geratuko da. Horregatik deitzen diogu 'segregazio legea', bereizi egiten duelako: gaztelaniaz bakarrik dakitenek euren eremua edukitzen jarraituko dute eta inork ezingo die ukitu eremu hori; eta euskaraz eta gaztelaniaz dakigunok gure 'erreserba euskaldun' hori izango dugu.

dakitenek euren eremua edukitzen jarraituko dute eta inork ezingo die ukitu eremu hori; eta euskaraz eta gaztelaniaz dakigunok gure *erreserba euskaldun* hori izango dugu. Gure ustez, diskriminazioa ezin da legez bermatu eta profil linguistikoen arabera irakasleak banatzea zalantzarik gabeko diskriminazioa da. Norbait bi edo hiru hizkuntzatan eskola emateko gai denean hizkuntza bakoitzeko oposizio bat egin beharra salagarria da. Egoera horrek ez du zerikusirik nafar hiritar guztiak administrazioan lan egiteko beharko luketen aukera berdintasunarekin. Adibidez, ingelesko irakasle batek bi oposizio egin behar al ditu euskarazko zerrendan eta gaztelerazkoan lan egin ahal izateko? Non dago hor aukera berdintasunaren printzipioa? Zein zentzu du zerrenda bakarrak eskaintzen dituen aukeren ondoan?

Ekimen legegile honek, gainera, ez die soilik zerrenda bakarraren aldeko eragingo, administrazioko langileengan ere ondorio zuzen eta kaltegarriak izango ditu. Esate baterako, une honetan profil bereziko hainbat ikastetxetan dauden 200 kontratu elebidun inguru ataka larrian jarri dituzte eta euren egoeraren prekarizazioa aurreikustea erraza da. Parlamentuan onartutako legearen arabera, irakasle bakoitzak soilik oposizioa egin duen hizkuntza profilean egin ahal izango luke lan. Beraz, kontratu elebidun horietan, zirt edo zart, hizkuntza bat edo bestea aukeratu beharri bidea ireki zaio orain eta horrek lehen kontratu osoak zirenak partzial bihurtzeko arriskua dakar berarekin. Lan arloan lege berri horrek ekarri duen anabasaren adibide bat besterik ez da.

Honen guztiaren ondorioz, momentuz badirudi ezinezkoa izango dela zerrenda bakarra ezartzea. Batez ere, IEK, maila politikoan, blokeo honi eusten dion bitartean. Baina aurrera egiteko komeni da mito batzuekin apurtzea. Horietako bat da zerrenda bakarrak gaztelaniaz soilik dakiten irakasleei lana kenduko diela dioen mitoa. Beldurra ereiteko erabili duten argudioa da, baina gezur hutsa da. Hasteko eta behin, kontuan izan behar dugu jadanik funtzionarioa denak, alegia, gaur egun AG ereduaren lan egiten duten irakasleek euren postua bermatuta daukatela. Eta zerrenda bakarrari buruz hitz egiten dugunean ez gara ari esaten bat-batean AG ereduaren desagertu egingo denik, edo gaztelania hutsez ikasten duten ikasleek derrigorrez euskaraz ikasi beharko dutenik. Dena nahasi egiten da, eta mezu hori ari dira bidaltzen beldurra sartzeko. Eta hori oso arriskutsua da, azken batean, gure arteko lehia ari direlako sortzen. Eta lehia hori artifizia da. Ez da existitzen. Gu institutuetan, askotan, departamentuetan batera egoten gara, eta sarri ikasleak ere partekatzen ditugu. Ez duguna ulertzen da zergatik ezin dugun zerrenda bat konpartitu. Eta beste aldetik, esan behar da honekin ez dela AG ereduaren desagertzen, baizik eta gizarteak egiten duen eskariaren arabera zehaztuko direla zenbat ikasle ditugun gaztelania hutsez ikasi nahi


dutenak eta zenbat gaztelaniaz eta euskaraz. Eta hori orain ere horrela da. Esan nahi duguna da zerrenda bakarrak horrekin ez duela amaitzen. Alegia, gaztelania hutsez ikasten jarraitu nahi duen jendeak horretan jarraituko du. Horri guk ezin diogu uko egin, hori delako gizaratean daukagun errealitatea. Jakina, sindikatu bezala saiatuko gara bultzatzen jendea D ereduaren matrikulatu dadin, horrekin ez diogulako uko egiten gaztelaniari, baizik eta ongi-etorria ematen diogulako euskarari.

Bigarren mito batekin ere amaitu nahi dugu. Kontua da funtzionarioek euren postua bermatuta dutela onar-tzen badugu, argudio bezala bitarteko irakasleen afera soilik geratzen zaigula. Baina guk dioguna da, bitarteko irakasleen kasuan ere, norbaitek euskaraz irakasteko aukera baldin badauka, euskaraz irakatsiko duela. Nahiz eta askotan argudio gisa erabili "lana kenduko dizute..." edo "aukera gutxiago izango dituzu..." eta antzerakoak. Hortaz, honekin zer esan nahi dut? Finean, AG ereduaren zerrenda bakarrak izango lukeen eragina oso txikia izango litzatekeela.

Uneotako egoera da, IEK aurreko egoera onargarria ikusten ez zuenez, baina zerrenda bakarra ere nahi ez zuenez beste proposamen bat egin duela, erdibideko hautu bat, nolabait esatearren. Proposamena da hautagai bakoitzari bi oposizio egiteko aukera ematea. Orain arte egun eta ordu berean egiten ziren oposizioak, baina orain IEK proposatzen duena da bi egun jartzea —hizkuntza bakoitzerako bat— eta jendeari bietan parte hartzeko aukera ematea. Gure ustez, ez du zentzurik azterketa bera bi aldiz egin behar izateak hizkuntza banatan, ez behintzat azterketa horietako bakoitzean jakintza berbera demostratu behar badu, kontua ez baita azterketa horietan hizkuntza gaitasuna neurtzen dutela.

IEK egin duen proposamenaren harira ireki den bide horrekin ere ez dakigu oraindik zer gertatuko den, baina edozein kasutan egoera berri bat sortuko da. Ikusiko dugu afera honek nola eboluzionatzen duen, baina gure helburua eta borroka zerrenda bakarraren aldekoa izango da.

# ARGITALPENAK




## ZENBAKIAK ASMATZEN

Gianni Rodari / Alessandro Sanna /  
Itzul.: Fernando Rey

## PAMIELA-KALANDRAKA

Kontakizun hau Rodariren *Telefonozko ipuin*etako bat da. Bianchi jaunak, alabari gauero ipuin bat kontatzeko hitza bete nahian, eta elkarrengandik urruti bizi direnez, telefonoz deitzen dio. Telefonoko elkarrizketan galdera harri-garri bezain xebreak egiten dituzte; adibidez: nolako pisua du malko batek?




## DINOSAURO HANDIEN LIBURU HANDIA

Alex Frith / Fabiano Fiorin

## TTARTTALO

Dinosauroak izan ziren Lurrean egon ziren izaki handienak. Orain dela milioika urte haiek ziren nagusi. Liburuko orrialdeak eta hedagarriak zabalduz gero, izaki luzeak, astunak eta beldur-garriak aurkituko ditu irakurleak: haien artean, *Brachiosaurus* indartsua eta *Tyrannosaurus* ikaragarria.




## LIMOIONDOAREN LOREAK

Lur Gallastegi / Susanna Martin

## ELKAR

Violeta eta Luna ama-alabak dira liburuko protagonista. Euskal Herrian bizi dira, baina amona gaixotzean, Violetak ustekabean sorterrira bidaiatu beharko du, Nikaraguara. Bitartean, Nikaraguako amona ezezagunak berari idatzita utzitako koadernoan irakurriko du Lunak, eta jaioterria ezagutuko du.




## MOKO TXIKI

Leire Bilbao / Maite Mutuberria

## PAMIELA

Mokotxiki txoria eta hipopotamo bat dira protagonistak. Pertsonaia horien bidez, haien eta txikien arteko harremana kontatzen da liburuan. Sinbiosi harremana dute txoriak eta hipopotamoak: txoriak hipopotamoaren gainean edonora bidaiatzen du oihanean zehar, eta ordainetan, zaurietan hazten zaizkion bizkarroiak kentzen dizkio txoriak hipopotamoari.



## GAILUR EKAIZTSUAK

Emily Brontë / Itzul.: Irene Aldasoro

## EREIN

Umetatiko lehen amodio bortitz, ero, galgarri, menderaezin baten historia da *Gailur Ekaiztsuak*. Minbizi bihurtutako bizi-min baten historia. Heathcliff da nobelaren ardatza. Machiavellorekin eta Sadeko Markesarekin lotu izan dute pertsonaia hori. Obsesio baten kontakizuna dugu, beraz, eleberria. Amodio destainatu baten istorioa da, baina hori baino gehiago ere aurki daiteke liburuan.



## BEHINOLA, 36. ZENBAKIA

Askoren artean

## GALTZAGORRI ELKARTEA

Jada kalean da *Behinola* haur eta gazte literatura aldizkariaren 36. zenbakia. Hain zuzen, besteak beste, haurrentzako aldizkariaren gaia jorratzen du, Gustavo Puerta Leisseri elkarrizketa eginda. *Lau eskutara* atalean, haurrentzako musikari buruz idatzi dute Helena Casas eta Maite Larburu musikariek. Azkenik sormenaren atalean Patxi Zubizarreta eta Josune Urrutia jardun dira.

# PROPOSAMENA

## ELGETAKO MEMORIA HISTORIKOAREN INTERPRETAZIO ZENTROA

Oroimenaz duintasuna berreskuratuz

XX. mendeko euskal historiaren pasarte gordinenetarikoak ezagutzeko aukera ematen du zentroak: Espainiako Gerra Zibilean (1936-1939) Euskal Herrian gertaturikoak, kausak eta ondorioak. Gainera, zentroak ibilbide gidatuak antolatzen ditu Elgetako frontean zehar.



**E**lgeta, Gernika, Durango... euskaldunon memoria kolektiboan iltzatuta gelditu diren herri-izenak dira, XX. mendeko euskal historiaren pasarte gordinenetarikoekin lotuta baitaude. Elgetaren kasuan, txanponak bi aurpegi ditu, dena dela. Iluna bata, Espainiako Gerra Zibileko (1936-

1939) borrokaldi odoltsua eta erreprezio ankerra dakarzkigulako gogora. Baina badu alde argirik ere, 2017ko abenduan herri horretako udalak gerra krimengatik aurkezturiko salaketa onartu egin baitu Bergarako auzitegiak; lehen aldia izan da Espainiako auzitegi batek frankismoaren krimenekin loturiko salaketa bat izapidetzea

onartzen duena.

Ez da hori izan, hala ere, urte luzez isilarazitako gertakariak argitaratu emateko Elgetako Udalak eginiko ekimen bakarra. Izan ere, Gipuzkoako Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, Elgetako Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa martxan jarri zuen 2010ean.



Zentro horretan, Espainiako Gerraren barruan Euskal Herrian jazoriko gertakari nagusiak ezagutzeko aukera izango dute bisitariek, hala nola gudaldiak, gudan parte hartu zuten batailoiak... bai eta Elgetan gertaturikoa bizi izan zuten herritarren testigantzak ere. Horrez gain, gudaren kausak eta ondorioak ere aztergai ditu zentroak. Elgetan gertatutakotik abiatuta, errepresioaren inguruko gogoeta egitea da helburua, memoriarekin batera jazarpenaren biktimen duintasuna berreskuratzeko, ahal den neurrian.

### Frontean barrena

Interpretazio-zentroak, gainera, bisitaldiak antolatzen ditu 5 km inguruko ibilbide tematikoan, Elgetako frontearen kokalekuetan barrena. Ibilaldian zehar, orduko babeslekuak, lubakiak eta parapetoak ikus daitezke. Hileko lehen igandean, euskaraz egiten dute ibilbide gidatua, eta azken igandean, berriz, elebiduna izaten da. Taldea osatuz gero, beste edozein egunetan ere egin daiteke bisita, baina gutxienez 12 lagun behar dira taldea osatu ahal izateko. Kasu guztietan, beharrezkoa da aurrez erreberba egitea. Bestalde, bisitak 3 ordu eta erdiko iraupena du, 10:00etan

hasita.

Bergarako Basalgo auzoan hasi, eta Azkonabieta menditik Karabietaraino heltzen zen Elgetako frontea. Handik, Elgeta herriraino hedatzen zen lerroa, gaur egun Kanpazarrera daraman errepideari jarraituz Asentzión Intxortako Atea monumentua kokatzen den lekuraino. Han kokatu zen 1936an eraikitako lehen parapetoa. Handik, Arrota baserrien ingurutik Zabaleta auzuneraino heltzen zen frontea. Lerro zabala zen gizon eta arma gutxiarekin defendatzeko, baina kokaleku geografiko ona zuen, ordea, frontea hausteko, etsaiaren kokalekuekin alderatuz.

Fronte-lerro horretako 11 gune ikusteko aukera dute bisitariek. Hala nola 80 metrotan zehar zabaltzen den Eusko Gudarostearen lubakia, hainbat parapeto eta babesleki, eta baita mito bihurtu zen "La Belga" metrailatze-habia ere. Altxamendua-ren aldekoek erabilitako lubakiak ere ikus daitezke. Fusilatutako elgetarren oroimenez eraikitako monolitoan amaitzen da ibilbidea.

Ohiko jardunaz gain, Elgetan izandako borrokaldiak birsortu eta antzeppenak antolatu izan dituzte fronte-lerroan zehar.



### ELGETAKO MEMORIA HISTORIKOAREN INTERPRETATIO ZENTROA

**Non:** Maala kalea 2, Elgeta.

**Noiz:** Ibilbide gidatuak hileko lehen igandean (euskaraz) eta azken igandean (bisita elebiduna) antolatzen dituzte. Beharrezkoa da ibilbide gidatuak aurrez erreserbatzea.

**Harremanetarako:**

943 71 89 11 edo 943 79 64 63 telefono-zenbakiak, eta [turismo@debagoiena.net](mailto:turismo@debagoiena.net) helbidea.

**Prezioak:**

Erakusketa iraunkorrerako sarrera doakoa da.

Bisita gidatuen tarifak hauexek dira:

- 16 urte baino gehiago: 5 €
- 6-16 urte artean: 2 €
- 6 urte artekoak: doan



# ATZEKO ATETIK



## BAI, AHAL DA

IRANTZU PASTOR ARGAZKILARIA



Agian, txikitan ikastolako paretan zegoen munduko mapa gehiegi begiratuta piztutako jakin-nahiagatik bidaiatu dut.

Agian, horregatik iritsi nintzen behin Guatemalako komunitate galdu batetara eta han ikusi nituen hamaika emakume, bizkarrean haurrak zituztela, eskola txiki batean Quiekhí hizkuntza maiian idazten ikasten.

Agian emakume horien konpromezuak

eraman ninduen Kolonbiako herri txikietara ere, eta gerraz inguratutako mendien artean bertze eskola bat topatu nuen. Bertan, beti eramaten dituzten plastikozko bota beltzak jantzita, nekazari talde bat alfabetoa erreparatzen ari zen.

Agian, horrelako hamaika eskola egotea eta alfabetatzeko aukera izan duten milaka herritar egotea ere ez da kasualitatea.

Kuban jaio eta mundura zabalduko "Yo, sí puedo" helduentzako alfabetatze proiektu xume eta arrakastatsua argazki ezberdinak dira hauek, eta agian, funtsezkoena irakasten duelako da hain interesgarria. Nekazari, indigena eta milaka herritar ahaldu dituelako ahaztua zuten zerbait gogorarazten "Bai, ahal da. Nik, ahal dut".

Euskal  
Eskola  
Publikoa

# Handi- tzen handi- tzen

Mundua  
eskura  
izateko

**AURRE-  
MATRIKULA**

Urtarrilaren 29tik  
otsailaren 9ra

ONLINE  
AURREMATRIKULA  
[www.hezkuntza.net](http://www.hezkuntza.net)

*Euskadi, auzolana*

ESKADIA JAURLANITZA  GOBIERNO VASCO



# NAHASTUTAKO HAURRAK... HELDUEN NAHASMENA? hitzaldia

**Bizkaiko Hik Hasik** antolatuta, MARTXOAREN 13an,  
18:00etan, ALVARO BEÑARAN psikomotrizista eta terapeutak  
hitzaldia eskainiko du Bilboko **AZKUE fundazioan**.

Hitzaldia DOAN eskainiko bada ere, parte hartu nahi duenak  
izena eman behar du.

Izena emateko: **[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)** helbidean